



HAUTESKUNDEAK ATE JOKA

SEI ALDERDI LEHIAN AZPEITIAN; AAS GABE, ORDEA



ikasberri

AZPEITIKO IKASTOLA

Loiolako Inazio Hiribidea 26
20730 AZPEITIA

tfna.: 943151246
faxes.: 943151776
e-maila: ikasberri@ikastola.net



Gipuzkoa kalea 5
20800 ZARAUTZ

tfna.: 943111000
faxes.: 943110990
e-maila: informazioa@oteitzalp.org



BATXILERGOA

- ✓ GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- ✓ OSASUN ETA NATUR ZIENTZIAK
- ✓ TEKNOLOGIA

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ✓ Mekanizazioa
- ✓ Ekipo eta instalakuntza elektroteknikoak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ✓ Aplikazio informatikoen garapena
- ✓ Industri ekipoaren mantenua
- ✓ Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Erregulazio eta kontrol automatikoak



GUK **ikasola**
bizitzarako bultzadarik onena

gure **ikastolak**
ezagutu eta
informazio zuzena
jaso ezazu

Basazabal



Broma guztiek dute zer bait bromatik eta zer bait egiatik. Hala esan nion lagun bati, eta harrezkero egiten dizkiodan broma guztien egiazko zatiaren galdezka hasten zait, esan nahi dudana guztiz argitu arte.

Basazabalen erakusketa antolatu zuten. Hala agertzen zen Uztarrarian aurtengo urtarri-leko zenbakian, 27. orrialdean. Joateko asmoa agertu nien zenbaiti. Leloa ni! Ondo begiratzuz gero, antzeman daiteke broma.

Egia, baina, lekuri ez dagoela erakuskete-

tarako, han aipatzen den bezala. Aspaldi izan nuen aukera Basazabal barrutik ezagutzeko, ez erortzeko konponketak egin berriak zirenean. Egokia iruditu zitzaidan dantza talde edo antzerki talde batentzat, lokalaz gain patioan aukera dagoelako entseguetarako. Egun tai-chi, kapoeira, yoga... Eta zer esanik ez erakusketak egiteko.

Azpeitian lokal behar handia dagoelakoan nago. Soreasu berrian taldeak biltzeko lokal banarekin eta ikuskizunetarako beste batekin

ezin da asetu Azpeitia bezalako herri baten beharra. Era guztietako lokalak behar dira, handiak, txikiak, polibalenteak, publikoak, sasi-pribatuak... Uztarririk proposatzen duen Kafe Antzokia ez dago zer ukatu Soreasun eraikuntza bakarria eginda. Sanagustinek ere ez du denetarako balio. Gehiago ere beharko lirateke. Aniztasunean dago erantzuna.

Orain Basazabal hotel bihurtu behar omen dute. Saiatu naiz, baina oraindik ez dut aurkitu non dagoen broma eta non egia.

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.

94315 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 84.a (2007ko maiatza)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. EREGI

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Lizarra Grafikak

Azaleko argazkia. Leire Larrañaga

Oharra. Uztarririk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



[u-iritzia]

08 Inkesta. Maiatzeko azken igandean Xoxoteko Eguna joateko ohiturarik ba al duten galdetu diegu herriko txikienei.

09 Azpeitiaz. Txema Auzmendi kazetariak Azpeitiari eta azpeitiarrei lotutako oroitzapenak ekarri ditu gogora.

[u-mamia]

12 Han eta hemen. Lanbide Heziketako praktikak kanpoan egitea erabaki duten lagunen testigantza.

14 Klik. Burdinbidearen Euskal Museoko trenean bidaiatu du Uztarririk.

22 Hauteskundeak. Elkarriketak, asmoak, hautagaiak, datuak...




[u-jakiteko]

40 Eskalada. Aurten, lehen aldiz, presoei elkartasuna adierazteko eskalada txapelketa antolatu dute.

[u-euskara]

52 Omenaldia. Antton Eizagirre azpeitiarrik urteak daramatza euskalgintzaren alde lanean Bastidan (Araba). Omendu egin dute.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Eskatzen hasita

Badakit, hasi etxebizitzaren arazotik, bariantera, kanpotik etorritakoen egoeratik baserritarren aferetara, edo hizkuntzaren eguneroko galeratik gazteei propio dagozkien arazoetara, gai garrantzitsuagoak zientokada bat baditugula herrian baina, honetan sarturik nagoenez, maiatzean santaeskera nator.

Udal berriari, dagokion neurrian, Azpeitia herri kirolen herria izan dadin bultzatzeko eskatu nahi diot. Merezitako fama txarra du herri kirolak; zikina eta ezkutukoa izan delako apustuen eta marken itzalean, eta naturari egin ohi zaion kalteari begira jarri gabe egin direlako egin direnak. Baina tira, aprobeitza daitekeen zerbaiten jabe ere izan daiteke oraindik.

► **URRATSAK.** Sustraietatik abiatu eta ea, enborean barna, adarretatik adasketara eta handik lore muturretara iristen garen. Hauek, ustez, eman beharreko urratsak:

—Herri kirolak eskoletan. Lehenaz gain, eskoletan eta ikastolan herri kirol mailan egiten dena bultzatu beharko litzateke. Horretarako egokiak diren kirolak bereizi eta landu. Lokotx-biltzea, sokatira, trontza, zaku-lasterketa, txingak, ingudea, orgajokoa eta beste kirol batzuk egokiak izan daitezke, egoki hartuz gero, jolasaren goxotasuna dastatzeko.

—Herriko nahiz bailarako txapelketak. Jolasean jarraituz, norberaren trebezia erakusteko aukera. Sariak parte-hartzaile guztientzat, eta umore ona nagusi. Gurasoak zenbat eta urrutiago, hobe.

—Herri kirolen eskolak. Ume ziren haiek koskortzen direnerako. Herri santu honetan dugun herri kirolari ohi piloarekin seguru bakarren bat izango dela prest berak plazaz plaza ikasitakoa gazteei erakusteko.

—Herri kirolen etxea. Herri kirola protagonista den tokia. Jendea biltzeko, materiala gordetzeko,

lehiak, erakusketak, ikastaroak, topaguneak eta abar antolatzeko, eta, besterik gabe, mahai bueltan eseri eta bakoitzaren balentriak kontatzeko. Teknikari bat entrenamenduak zuzentzeko eta kirolariak egiten laguntzeko: psikomotrizitatea, janaria, pulsometroa, hematokritoak, pisuak...

—Mediku zerbitzua. Lesioak nondik datozen ikusteko eta, gertatuz gero, irtenbideak topatzeko. Galtzen eta irabazten erakutsiko duen espezialista.

—Ikerketa zentroa. Materialak aztertzeko, esate baterako. Pagoari arnas pixka bat eman diezaioketun aztertuko duena. Erabat inguratuta gauzkan pinua aizkorarako baliogarria den aztertuko duena. Umeek eta gazteek min har ez dezaten materiala egokituko duena. Animaliei egiten zaizkien basakeriak gertutik ikertuko dituen, salatuko duena salatu behar bada, eta ezteundun akuilua edo zentraminak beldurraren museora bidaliko dituen.

► **MUSEOA.** Herri kirolen museoa sortu.

—Gure kirolez gain, gure historia txikia ezagutzeko. Izan garenak erakuts diezagun zer izan nahi dugun. Azpeitiarrak herri kirolen uretan zenbat murgildu diren, garen, zareten jakiteko, eta, ito gabe, geroan igeri egiteko. Segur herdoildua, itsasoari lapurtutako harri labaina, arraildutako aizkora, hortz txikidun trontza arina, hamaika esku txikitutako soka, uztarri itogarria... Lehengo okerrak gogoratuko dizkigun gunea errepika ez dezagun.

—Lehendabiziko urratsak emateko, federazioaren, Xiba eta antzeko erakundeen laguntza artertzea komenigarritzat jo beharra dago, bide honen egunerokoa inork baino hobeto ezagutzen dutelako.

—Eta eskatzen hasita, Frontoi Txikia behar den bezala itxi dezatela, behingoz. Arratsaldean frontoira eta hurrengo goizean anbulategira ez da-eta planik hoberena.

► **ETORKIZUNA.** Azkeneko lau urteetan zer egin den eta zer ez aztertzea komenigarria da azpeitiarrontzat. Hurrengo hurbilak du, ordea, garrantzia. Aitzakiak baztertuta, lanari ekiteko garaia da.

HILEKO ESALDIA ▶

Zer garen ahaztu gabe

Zer da erreka bat nire gabe?

agirre oparidenda
ana mari egaña jantzi dena
azkue jantzi dena
gemma kinkilidena
iturralde iturgintza
furundarena oinetakoa
gotain lurrindegia
jone eta maikar estetika zentrua
jostaldi kirola
lidia jantzi dena
martina isasti jantzi dena
natura belardena
torrealday aholkularitza
urrestilla jantziak

Herriaren Ardatza,
ALDE ZAHARRA

egin zaitez bazkide - Tel 943 81 08 95





Jon Larrañaga

Jo

Goizeko zortzirak dira eta, ia egunero bezala, umore txarreko jarri naiz Urrestillatik Landetara irteteko dagoen gurutzebidetan. Bordatxo aldameneko irtetaz ari naiz.

Beste toki askotan ere bai baina Urrestilla aldera hartzen duen ia inork ez dio intermitenteari ematen. Irteteko prest gauden asko horrela ateratzen gara gero gurutzebidetik, estresak jota!

Eguneko lehen proba izaten da hori eta ondoren Azpeititik Arroarako bide luze-luze-luzea hartzen dut... Beti tokatzen da kamioiren bat edo bi edo... Arazotxo horiei aurre hartzeko etxetik hamar minutu lehenago ateratzea erabaki dut; bestela, beti berandu iristen naiz lanera. Bada, ordea, beti presaka dabilen eta horrelakorik egiten ez duen jende azkarrik, errepidea berea dela uste duena eta edonon edonor aurreratzen joaten dena. Kasualitatea, ia beti BMW, Audi edo kotxe onak dituztenak izaten dira.

▶ **'SALTINBAKIA'.** Danona parean tokatu zitzaidan horrelako bat orain dela gutxi. Aurretik kamioia eta Euskotren autobusa, ondoren ni 60 kilometro orduko abiaduran, eta nire atzetik beste hamaika auto. Ilararen bukaeran, ordea, *saltinbakia* zirudien auto bat somatu nuen denak aurreratu nahian.

Ez zen ezer larririk gertatu baina nire atzeko autoak eta biok ia-ia bide ertza jo genuen. Bi noranzko bidea bat-batean hirukoa bihurtu zen, gure atzetik zetorren *saltinbakiak* ez zuelako nire atzeko eta neure autoaren tartean sartzeko denborarik izan. Segundo batean *saltinbakiaren* eta nire begiradek bat egin zuten.

Barrenean nuen *mala letxe* guztia atera nuen une horretan.

—“Kabroia! Geldi hadi eta ikusiko duk! Jo eta seko utziko haut!”.

Bizitzan ikusi duzuen tiporik gogorrena bihurtu nintzen orduan. Hori bai, *saltinbakia* gelditu ere egin gabe Zumaian izango zen ordurako eta horregatik ari nintzen horrela. Parean gelditu balitz ziur ez niokeela ezer esango eta are gutxiago egingo.

Horrelakoa naiz; niri indarra ahotik joaten zait. Ohartu naiz, ordea, denak ez direla nire antzekoak. Larunbat gauetan nahi baino gehiago ikusten dut alkoholaren eraginez zakar eta bortitz jartzen den jendea. Mozkor txarra dute, eta euren *hobbya* jendearekin sartzeta eta borrokan amaitzea izaten da. Zoritzarrez, denok ezagutzen ditugu.

▶ **EZKUTUKO ERASOTZAILEAK.** Badira, ordea, ezkutuan eta 'maite' dituztenak joka ibiltzea gustatzen zaienik. Hauek zoritzarrez ez dira hain agerikoak eta ezagunak.

Jotzea gustuko izateaz gain, era honetako tipoei badute beste zerbait amankomunean: gurekiko jarrera.

Kalean istiluak ikusten ditugunean, zenbat aldiz begiratzen dugu beste aldera? Zenbat aldiz goaz tragoa utzita beste taberna batera?

Zenbat aldiz pentsatzen dugu: “Gu bakean uzten gaituzten bitartean...”.

Taberna batean mozkor bortitz bat zurekin sartu eta bakarrik sentitzen bazara inork ez dizulako lagundu, ez dut imajinatu ere egin nahi etxeko lau pareta artean jotzen dutena nola sentituko den.

Legea zorroztu egin behar da, hezkuntza ere beharrezkoa da horrelako gauzak ez gertatzeko baina, batez ere, oso garrantzitsua iruditzen zait gure jarrera aldatzea.

Jarrera aldatzeak bestea nola dagoen ohartzea eskatzen du, entzutea eta, batik bat, denbora eskaintzea. Baina estresatuta eta gure gibelari begira bizi garen garai honetan nor dago bere denbora emateko prest?

▶ **GURE JARRERA.** Euskaraz, 'jo' hitza erabilia beste hainbat hitz atera ditzakegu: adarra jo, jolas-tu, jo eta ke, jo eta su, edo larrua jo, besteak beste. Denak ere umoretsuak edo baikorrak dira... Nik 'jo' hitza horiekin erabili nahi dut, baina batzuetan zaila da.

Badakit politikoki zuzena ez dela baina... Norbait tipotzar hauetakoren bat jotzen ikusiko banu, ez dakit zer egingo nukeen: ez ikusiarena egin, neuk ere jo, laguntzarik eman gabe begira gelditu...

Baina orduan gu geu ere ez al ginateke eurak bezalakoak bihurtuko? Zer zaila den batzuetan bitzita...



**eusko
alkartasuna**
euskal sozial demokrazia

**Interes pribatuen gainera
guztien beharrei erantzuneko taldea**

AZPEITIKO EUSKO ALKARTASUNA

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Galdetuz ▶

Hileko azken igandean igoko al zara Xoxote gainera?

JOSU IRAOLA ▶
azpeitiarra



“Egunean bertan ez, baina udara partean igotzen naiz Xoxotera. Familia guztia joaten gara eta egunpasa egiten dugu. San Inazoren irudi ondoko bistak izugarri gustatzen zaizkit”.

JON IBARZABAL ▶
azpeitiarra



“Xoxoteko eguna asko gustatzen zait. Aurreko urtean joan nintzen eta aurtan ere joatekoak gara.

Eguneko giroa eta mendira igotakoan bokadiloa jatea atsegin dut gehien”.

ENEKO LARRAÑAGA ▶
azpeitiarra



“Aurreko urtean joan ginen eta aurtan oraindik ez dakit joango garen. Familiarekin joatea

eta han bazkaltzea gustatzen zait. San Inazoren irudia ere bisitatzen dut ahal dudanean”.

AMETS SORAZU ▶
azpeitiarra



“Ez dakit. Gurasoekin-eta igotzen naiz Xoxotera udaran. Askok gustatzen zait mendira joatea; bertako loreak eta arbolak gustukoak ditut”.

Hau ▶



Miren Larrea

Nola banatu oilaskoa

Iritzi artikulu bat idazteko momentuan, dirudiena baino zailagoa gerta daiteke norbere iritzietatik bat aukeratu eta azaltzea. Zentzuzkoena ezagutzen denari buruz idaztea izango denez, has nadin gure ekonomiarik lotutako hausnarketa batekin.

Ekonomia nola doan jakiteko adierazlerik zuzenena buruko barne produktu gordina omen da; hau da, azpeitiar bakoitzeko zenbat aberastasun sortzen duten udalerrian lanean dihardutenek. Gure herrian, biztanle bakoitzeko 28.013 euroko balioa sortzen omen dugu urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko 19.316 euroak baino nabarmen gehiago. Beraz, ondo gabilta aberastasuna sortze kontuetan. Baina zenbat iristen da herritarren poltsikoetara? 11.243 euro. Ez dago gaizki, baina EAEko batez besteko 10.800etatik gertuago oraingoan.

Lagun batek oilasko bat jaten badu eta besteak ezer ere ez, estatistikoki bakoitzari oilasko erdia dagokio. Gure kasuan, 11.243 euro horiek nola banatzen diren ulertzeko lan merkatuari begiratu behar zaio. Azpeitian, lan egiteko adinean gaudenotatik %49 lanean ari omen gara. Ondo berriz ere, EAEko batez bestekoa %43 delako. Baina emakumezko eta gizonezkoen artean bereizten badugu, argi geratzen da oilaskoa nork jan duen. Izan ere, gizonezkoentzat datua %65ekoa da eta emakumezkoentzat %34koa (31 puntuko aldea). Ez gabilta ondo banaketa kontu honetan, batez ere EAEn batez besteko alde hori 23 puntukoa dela ikusirik.

Horixe da nire lehen hausnarketa, Azpeitian ekonomia oraingoan ondo doakigula, baina batzuei hobeto besteei baino. ‘Oraingoan’, esan dut... baina hori hemendik bi hilabeterako utzi beharko dugu.

Apunteak ▶

GALDERA.

Eudel EAEko udalen elkarteak esan du 73 udalek eman dutela bake foroa martxan jartzeko izena. Azpeitiko Udala da horietako bat. Baina noiz jarriko dute martxan? Garai politiko hobearen zain al daude?

GORA.

Jubilatupei terrenoak eman dizkiete, baratzak izan ditzaten. Ekimen polita da.



Mikel Aranburu, Realeko jokalaria.

SINADURA

GORA.

Reala Espainiako Bigarren A Mailara jaisteko arriskua dauka, Mikel Aranburuk ekainera arteko kontratua zeukan (urtebete luzatzeko aukerarekin), Lehen Mailako taldeen eskaintzak izango lituzke, baina Realean segitzea erabaki du; 2011ra arte, gutxienez. Gustura dago mutila etxean, eta konpromisoa ere badu Realarekin.

Ba al dakizu... ▶

...aurten, lehen aldiz, hauteskunde egunean mahaletan egoteko lagun zozketa ordenadora bidez egin dutela udaletxean eta orain arte eskuz egiten zutela?

Kanpoko begirada ▶ Txema Auzmendi (kazetaria)

Azpeitian euskara poz-iturri

▶ **Azpeitia eta azpeitiarrok nola ikusten gaituen idazteko eskatu dio Uztarriak Txema Auzmendi kazetariari. Hemen haren ikuspuntua.**

Mexikotik iritsi nintzen 1985. urtean Loiolako santutegira, eta Iraurgi ikastetxean eskolak ematen jardun nuen hiru urtez. Mexikon eta Guatemalan igarotako ia hamar hilabeteetan bertako indioek nolako bazterketa jasaten zuten ikusi eta sufritu behar izan nuen, Euskal Herriko euskaldunenarekin alderatuz. Nahi izateke, noski. Tristura nagusi!

Euskaraz egiten 1973. urtean askatu nintzen Alkizan, hango haurrekin haur bihurturik. Gogorra izan zen eta, aldi berean, oso pozgarria, hantxe sentitu bainintzen estreinakoz euskaldun. Ordur geroztik, euskara beti izan zait buruhauste-iturri baino poz eta gozamen-iturri, bereziki Azpeitiko egonaldian.

Aurreko urteetan senide, adiskide, lagun eta bestelako pertsona euskaldunekin euskaraz normal egiteak sendotu egin zituen nire euskal izaera eta nortasuna, baina, aldi berean, zenbait tokitako erdal giroak izugarri sufrituarazi ninduen. Azpeitira itzuliz, Urola haraneko euskal giro biziak eguneroko gorabehera guztiak euskaraz bizitzeko abagune paregabea eskaini zidan, nik ordura arte beste inon aurkitu ez nuen... Hori guztiagatik, inoiz ezingo dizuet azpeitiarroi eta azkoitiarrei nire esker ona behar bezala agertu: adiskide eta lagun onak egiteaz gainera, euskaldun gisa bizitzeko aukera ezinhobea eskaini baitzenidaten, eta ondoren euskaldun eta euskal hiritar izateaz oso harro sentitu izan naiz beti, eta harrotasun hori euskaltzale gisa biziz 'kutsatu' nahi izan diet —oraindik ere horretan saiatzen naiz— nire ingurukoei. Eskerrik asko, bada, bihotz-bihotzez!

Adi gaixotasun mentalari!

Apirileko hirugarren asteburuan antolatu berri du Elizbarrutiko Caritasek urtean zehar gure elizetan zabaltzen duen lehen kanpaina. Gogoeta gai bat ere eskaini ohi digu bakoitzean. Oraingoan, gaixotasun mentala jasaten duten pertsonen egoera hartu du gogoan.

Caritasen zentroetan gaixotasun mentalak eragindako pertsonen kopurua asko handitu da. Drogak eta alkohola hartzearen ondorioz kalte larriak jasaten ari da pertsona asko.

Gizartean baztertzea eta marjinazioa eragiten duten pobrezia mota ezberdinak daude. Pobrezia mota horien eraginez ere gaixo mentalen kopurua handitzen ari da. Gure artean agertzen diren hauek dira, dudarik gabe, egoera dramatikoenean bizi direnak.

Gaixotasun mentalek, gero eta gehiago, marjinaziora daramatza pertsona asko; eta marjinazioak berak ere gaixotasun mentala eragiten du. Familiarik gabe, baliabide ekonomikorik gabe, jarraipen medikorik gabe, gaixo mentalak gure kaleetan harat eta honat dabilta...

Pertsona horien denen sufrimendua areagotu egiten da bakardadean. Askorentzat oharkabea pasatzen dira. Gure gizartean pobreenak eta azkenak identifikatu behar bagenu gaur, seguruenik ere pertsona horiekin egingo genuke topo.

Oraindik oroimenean ditugu orain hilabete gutxi Donostian izandako gertaera mingarri eta onartezinak: neguko hotzaren eta larrialdi zerbitzuen arreta ezaren ondorioz hil zen laguna, alde batetik, eta Martuteneko espetxeko bakardadean hil zen Saharako etorkina, bestetik.

Egia da gertaera mingarri horiek ez direla egunerokoak, baina asko dira pertsonen babesik gabe, haien eskubideekiko arretarik gabe, behar bezalako laguntzarik jasotzen ez dutenak.

◀ Eta beste



Kepa Susperregi

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Politika(ka)



Kepa Urbietta

Igor, Maitea! Ez dituk garai ederrak. Aurtan maiatza petrala zatorrek. Badakik, hauteskundeak dituk eta politikoak boterea lortzeko betiko kalapita usteletan hasiko dituk. Ez gaitiztek bakean utziko. Telebistak, irratiak, egunkariak, Internet, kaleak, postontziak... dena beteko zigutek gezurrez.

Eta aspertuta nagok. Oso aspertuta politikoekin. Batekoekin, bestekoekin, eta erdikoeekin ere bai. Ni bakarrik banintz sikiera, baina ingurukoak ere horrelaxe ikusten ditiat. Dena dela, sinesten hasita nagok bide horretatik etorriko zaigula behin betiko egonkortasuna. Gaitzerdi!

Azalduko diat: gauza batzuk

ez ditiat ulertzen. Euskal Herriko gatazkaz ari nauk. Gu jaio birtarte Euskal Herriak aldaketa asko izan ditik eta asko sufritu dik. Gu jaioz geroztik ere bsterik ez diagu ezagutu.

Bat-batean, "bake prozesua" etorri zaiguk. Bat-batean joan. Jada ez zagok prozesurik. Alegia, betiko egoeran jarraituko diagu. Ondorioa: politikoek ez ditek gaurkoz bakearen alde lanik egingo.

Eurek esaten zigutek noiz den bakearen aldeko prozesua eta noiz ez, egun arrazoirik ez balego bezala. Bitartean, segitu sufritzen. Itxura batean, ahaztu egiten zaiek euren lana dela herri baten egonkortasuna lortzea.

Horregatik, ez naik harritzen jendea aspertuta egoteak. Gizartea zaurituta, zatituta eta eskarmentatuta zagok. Politikoen ziriei tankera hartzen hasiak gaituk. Iruditzen zaidak iritsiko dela eguna gizartearen zati handi bateko politikoei kasu egiteari utziko diona.

Oraindik, gehienok gure parrokiak esaten duenari men egiten zioagu, errazegi. Baina, aldatuko duk. Eta aldatzen denean hartuko dik gizarteak dagoen boterea; hau da, hitza. Eta orduan, eta orduan bakarrik saiatuko gaituk benetan hain desiratua omen dugun bakea lortzen.

Lehenbailehen gertatzen bada, askoz hobe.

Udaberriko ekaitzak



Igor Aranbarri

Gogor idatzi didak oraingotan. Ekaitz bolada baten esperoan hagoela zirudik. Lasai, moteil! Paper zaparrada bat baino ez duk eta, gainera, badakik noiz bukatuko den guztia.

Baina euriak dena bustitzen dik, eta gure aberriko politikak ez dik aterperik. Busti nahi ez dutenek ere hankak putzu batean edo bestean sartuko ditiztek, hemen ez zagok balio duen aterkirik; busti beharra zagok, beraz.

Parrokiak aipatzen dituk, ederki aukeratu duk hitza. Izan ere, urteak zaramaatzagu, igandeetako mezak bezalatsu, sermoi berak errepikatzen, apaiak aldatzen dituk baina doktri-

nek, esan eta berresan, berdinean jarraitzen ditek.

Horrek garbi uzten dik arazo politikoa konpondu ez dela. Zerbait egin beharra zagok. Baina gatazka badela esateko moduak aldatu beharko ditiztek denek, akaso... Hitz sorta mardula komodin bihurtu duk jada: demokrazia, biktimak, gaitzetsi, askatasuna, bakea, biolentzia, borroka, errespetua...; gehiegi entzundako kantu bihurtu dituk. Esanahiari erreparatu ez eta abesleei so egiten zieagu jada, aurrez zer esango duten asmatu ere bai ziurrenik. Erritu denak alde batera uzteko garaia delakoan nagok.

Baina ez duk erraza, min asko zagok alde guztietan, eta

minak ez dik pentsatzen uzten; minak begiak itxiazten ditik, eta horrela ezin ba ezer ikusi.

Maiatzean ez dituk hauteskundeak soilik; udaberria gogoz sentitzen hasiko gaituk, loreek irtengo ditek, eguna bapo luzatuko duk, odola bero, gau giro ederrak izango ditiagu, terrazetan zerbeza... Eta norberak berea defenditzen jarraituko dik.

Presaka nauk, utzi egingo haut, udaletxera noak sinatzen, ez zakiat zerbaiteko balioko duen, agian dagoeneko jakingo duk erantzuna...

P.D.: "Nire aberria nire zapa-tak dira!". Hala esan zian gizon jakintsu batek, baina hura ez zuan Euskal Herrian jaio.



han eta hemen PRAKTIKAK

Lanbide Heziketako ikasketak bukatzeko beharrezkoa da praktikak egitea. Atzerriar batzuk hemen dira, hemengo batzuk atzerrian

► Testua: Miren Garate ► Argazkiak: Itsaso Mendiola eta Jon Agirrek utzitza

Gero eta gehiago dira ikasketak bukatzerako praktikak atzerrian egitea erabakitzen duten ikasleak. Atzerriko hizkuntza bat ikastea, bestelako lan ereduak ikustea edota bolada txiki batean herritik aparte egotea, asko izan daitezke horretarako arrazoiak. Era berean, alderantzizko kasua ere ematen da. Hau da, atzerriko ikasleek ere aukeratu izan dute Azpeitia praktikak egiteko. Esaterako, orain gutxi, bi ikasle finlandiar izan dituzte Azpeitian Azkue enpresan.

Atzerriar joateko aukera egin duenetako bat da Jon Agirre azpeitiarra. Mekanika ikasketak egin ondoren, egun Kaunasko (Lituania) enpresa batean ari da praktiketan, beka bati esker. Curriculumak hobetu nahiak baino "esperientzia berria" bizitzeko gogoak bultzatu du Agirre atzerriara. "Beti esaten dute enpresek kanpoko egonaldiak kontuan hartzen dituztela, baina nik ez dut uste hainbesteko garrantzia ematen diotenik". Martxoaren 10ean joan zen eta ekainean itzuliko da. "Oraingo, oso gustura nago, nahiz eta Azpeitiko gauzeekin oroitzen naizen".

Itsaso Mendiola, berriz, atzerriko ikasleek hona etortzeko aukera izan dezaten egiten du lan. Elgoibarko Institutuan dihardu Alazne Bidezabal azpeitiarrarekin batera, eta kanpoko ikasleen egonaldia antolatzea da euren zeregina. "Kanpoko ikasleekin harremanetan jarri eta hemen praktikak egiteko interesik duten galdetzen diegu", dio Mendiola. "Baietz erantzunez gero, ikasi dutena lantzen duen enpresa eta bizilekua aurkitzen saiatzen gara". Horrelaxe etorri ziren Paulus Viljami eta Jari Kristian 18 urteko finlandiarrek Azpeitira. Otsailaren 19an etorri eta martxoaren 30ean itzuli ziren euren herrietara, Azkue enpresan praktikak egin ondoren.

Praktiketan aritu arren, gainerako langileek bezala lan egiten dute ikasleek; bai behintzat, Lituania. Ordutegiari dagokionez ere, egunero zortzi ordu eta erdi bete behar izaten dituzte; tartean ordu erdi izaten dute bazkaltzeko. "Praktiketan ari garenok ordutegi berezia dugu, 7:30ean sartzen gara eta 16:00etan ateratzen gara; bazkaldu ere lantokian bertan egiten dugu", dio Agirrek. "Gainerako

langileek, ordea, hiru txandako laneguna izan ohi dute. Hortaz, ez dago desberdintasun handirik Lituaniako eta Azpeitiko lan egiteko moduen artean".

Mendiola adierazi duenez, Azpeitiko enpresa batekin izan duten aurreneko esperientzia da oraingoa. "Ikasle egoitza Eibarren dagoenez, errazagoa da kanpoko ikasleek han bertan egitea lan". Viljami eta Kristian ikasle finlandiarren kasua, ordea, berezia

“Ez dago desberdintasun handirik Lituaniako eta Azpeitiko lan egiteko moduen artean”

JON AGIRRE ► mekanikako ikaslea Lituania

“Finlandiarrentzat Azpeitiko enpresa aukeratzea pentsatu genuen, ospea dutelako egurreko enpresek”

ITSASO MENDIOLA ► Elgoibarko Institutuko langilea

izan da. "Egurreko modulua egiten ari diren ikasleak etortzen diren lehen aldia izan da guretzat". Hori izan da praktikak Azpeitian egitearen arrazoiak. "Azpeitiko edo Azkoitiko enpresa bat aurkitzea zela egokiena pentsatu genuen, hemen ospe ona dutelako egurreko enpresek", esan du Mendiola.

► **HIRIA.** Kaunas, Lituaniako bigarren hiririk handiena da, 400.000 biztanlerekin. Agirrek ez zuen arrazoi berezi batengatik aukeratu herrialde hori, zozketak hala nahi izan zuelako baizik. "Hasiara batean, Portugal tokatu zitzaidan, baina behin ateratzen hasita nahiago nuen urrutixeago zegoen herrialde batera joatea. Al-daketa eskatu nuen eta, azkenik, Kaunas egoitu zitzaidan".


Ondo moldatu da hara Agirre. "Hiri handia da, lur asko ditu, baina erdigunea herri txiki bateko modukoa da eta, azkenean, aurpegi guztiak egiten dira ezagunak". Hango jendearekin ere ez du aipatzeko moduko arazorik eduki. "Denetik dago, denean bezala. Baina, orokorrean, lituaniarrak jatorrak dira, leku publikoetan eta horrelakoetan ondo portatzen dira gurekin". Hala, askotan hurbiltzen zaizkie hango biztanleak jakin-minez. "Jende ugari ezagutzen du Euskal Herria, lituaniarrak nahiko independentistak dira eta euskaldunak garesti esandakoan berehala esaten digute Euskal Herria ez dela Espainia".

Bera bezala praktiketara joandako hainbat euskal herritar ezagutzeko aukera izan du Kaunas. "Nirekin ikasitako inor ez da etorri, baina bai hegazkinean eta bai hona iritsitakoan jende asko ezagutu dut". Pisu batean dago Agirre beste hiru lagunekin batera, eta, lanetik aparte, denbora



FINLANDIARRAK ETA AZPEITIARRA.

Paulus Viljami eta Jari Kristian finlandiarrak —goiko argazkian, ezkerretik bigarrena eta hirugarrena— egurreko modulua ari dira ikasten eta praktikak egiten izan dira Azpeitiko Azkue enpresan. Euskarazko eta gaztelarazko ideia handirik ez eta ingelesez moldatu dira lankideekin. Jon Agirre azpeitiarra —behean, Lituaniar—, berriz, mekanika ikasketak ari da egiten eta Lituaniako Kaunas hiriko lantegi batera joan da praktikak egitera. Lituaniako eta Azpeitiko lan egiteko moduak antzerakoak direla dio. Ekainean itzuliko da berriro herrira.



Hizkuntza

Praktiketara joan diren ikasleek lituanierazko eskolak hartu behar izan dituzte. Hala ere, egunerokotasunean ingelesez komunikatzen dira. Horrek, ordea, ez dio arazo handirik eragin Agirreri. “Hona etorri aurretik ez nuen ingeleseko maila oso alturik, baina dagoeneko nabaritzen dut hobekuntza”. Finlandiarren kasua bestelakoa izan da. “Euskara eta gaztelania ez ezagutzea eurentzat muga izan da lanerako orduan”, aipatu du Mendiolak. Dena den, ingeleza pixka bat menderatzen zuten jendea ipini zieten inguruan eta eroso egon zirela adierazi zuten biek egonaldia amaitzean; euskarazko hitz batzuk ikasi dituzte.

ahal den gehien aprobetxatzen saiatzen dira. “Alde batetik bestera ibiltzen gara denbora osoan: ahal den leku gehien ezagutu, parrandara atera... Horko bizimoduaren antzekoa daramagu hemen ere”.

► **UDARAN BUELTRAN.** Finlandiarrak ez ziren pisu batean egon, Azkoitiako Kukuherri aterpetxean baizik. “Oso gustura egon dira. Azkoitian bizi zirenez, hango lagunak egin zituzten, eta oso ondo hartu zituztela esan digute”, adierazi du Mendiolak. “Biek komentatu digute gauzak ondo badoaz udaran itzuliko direla oporrak hemen pasatzera”.

Agirre, oraingoz behintzat, praktikek irauten duten hiru hila-beteetan egongo da Kaunasen.

Elgoibarko Institutuan, berriz, hasiak dira beste ikasle batzuen egonaldiak prestatzen. Hala ere, Mendiolak ez dauka ziur Azpeitira beste ikasleren bat etorriko den. “Egurreko modulua ikasten ari den norbait ez badugu, zaila izango da Azpeitira ekartzea ikasleak, erosoagoa baita Eibar inguruan antolatzea egonaldia”. ◀

lurrun trenean

BIDAIA

1986an kendu zuten Urolako trena, eta 1998an ireki Burdinbidearen Euskal Museoa Azpeitiko geltokian. Gaur, lurrun trenak egiten du Lasaora arteko ibilbidea. Uztarria han izan da




BIDAIAIRIAK TRENERA.

Museoan trenarekin lotutako hainbat kontu ikus daitezke, baina dudarik gabe erakargarriena lurrun treneko bidaia egitea da. Aste Santuetatik azaroaren 4ra arte (asteburu eta jai egunetan) dute bisitariek trenean bidaiatzeko aukera.

ABIADURA.

30 kilometro orduko abiadura hartzen du lurrin trenak. 574ko abiadura hartu zuen Frantziako Abiadura Handiko Trenak apirilean. Bi mende parez pare.



'AURRERA'.

1898. urtekoa da *Aurrera* lurrin makina. Nasmyth & Wilson etxeak egin zuen, eta Elgoibartik Donostiarako ibilbidea egiten zuen 1960ra arte. Museoak 1991n erosi zuen.

LASAO.

Lasaora arteko bidea egiten du lurrin makinak. Han maniobra txiki bat egin behar izaten dute makina bagoien aurrealdean jartzeko eta Azpeitirako bideari ekiteko.



»


AZPEITIA ALDERA.

Ibilbide osoan Urola ibaia alboan du trenak. Bi alditan zeharkatzen du 40 metroko altuera duen zubia. 250 metro luzeko tunel bat ere bada ibilbidean.



BAGOIAK.

Trena *Aurrera* lurren makinak eta bi bagoik osatzen dute. Bi bagoiak –*Pagoa* eta *Aritza*– Urolako tren zaharrekoak dira, 1925ean Beasainen egindakoak.



BUKATU DA BIDAIA.

Hamar kilometroko joan-etorria 40 minutu ondoren bukatu da. Bidaariak museoan diren tranbia elektriko zaharrak, lurren lokomotorak eta beste bildumak ikusteko moduan dira.



ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24



Otamendi
Betzi Donda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"



**URBISTONDO
MARGOAK**
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



uztarria
Azpeitiko
erakuslehi handiena



AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net



CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
EIRA KUNTZAK



J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g
Urretxu 20700
Tel./Faxa: 943-721413/721403
jmiparragirre@edunet.es
www.iparragirre.net



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D eredueta

TITULAZIOA

- Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

IRAUPENA

- 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatueta
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 7ra (biak barne)

Matrikula: ekainaren 29tik uztailaren 6ra (biak barne)

Larrea Iritzian

Miren Larrea iritzi-emaile hasi da aldizkarian, Aitor Arangurenen partez. Iraurgi Lantzen-eko langilea da.

Telebistan zer?

Urola Kostan telebista digitalaren lizentzia eskuratzeko eskaerak egin dituzte Eusko Jaurilaritzan (EAEko beste hamalau eskualdeetan ere bai). **Aurkeztu direnak.**

► Urolaldeko Komunikabideak (lehenago Zarautz TB eta Hamaika Taldea).
► Gipuzkoa Television.
► Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa.

► Zabalik 2000.
Lizentzi kopurua. Jaurilaritzak Urola Kosta eskualdeerako ere gehienez lau lizentzi ditu gordeta.
Egoera. Urola Kostako Hitza

ez dago inon sartuta (Uztarría Hitza-ko bazkidea da), eta ikusi egin behar Urolaldeko Komunikabideekin lortzen duen lankidetzarik.



KULTUR AGENDA ►

Hilabetea.

Maiatza.

Banaketa.

Asteburu honetan.

Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.

Uztarría Kultur Koordinakundea.

belen urangarena 23. HITZALDIA IZAN DA

Belen Uranga Hizkuntzen Amarauren koordinatzailea apirilaren 17an hitzaldia ematen izan zen, Uztarría Kultur Koordinakundea antolatuta.

Harena izan da Uztarría (eta Baite Euskara Elkartek; biek bat egin zuten 2003an) antolatutako 23. hitzaldia. **Beste 22ak:**

1. Joxe Aranzabal kazetaria.
2. Mikel Aranburu futbolaria, Unai Osa, Koldo Alduntzin kazetaria eta Patxi Gurrutxaga sokatiralaria.
3. Iñaki Azaldegi (Tolosaldea), Ander Elortondo (Arrasate) eta Zigor Etxe-



Belen Uranga Hizkuntzen Amarauren koordinatzailea, Azpeitian.

- burua (Kontseilua) euskara teknikariak.
4. Juan Carlos Etxegoien Xamar hizkuntzalaria.
 5. Kike Amonarriz soziolin-guista eta Antton Olariaga marrazkilaria.
 6. Koldo Zuazo euskaltzaina.
 7. Iñigo Aranbarri idazlea.

8. Pako Aristi idazlea eta kazetaria.
9. Paula Kasares euskara teknikaria.
10. Martxelo Otamendi Egunkaria-ko zuzendaria.
11. Egunkaria-ko langile azpeitiarrak.
12. Koldo Izagirre idazlea.

13. Asisko Urmeneta marrazkilaria.

14. Xabier Isasi UEUko orduko zuzendaria.

15. Kepa Peñagarikano pilotaria, Pedro Otaegi aktorea, Xabier Agirretxe ELA-ko kidea, Lurdes Goenaga auzitegi medikua, eta Xabier Mendiguren Kontseilu-ko idazkari nagusia.

16. Joxe Manuel Odriozola irakaslea eta idazlea.

17. Agustin Unzuurrungaga SOS Arrazakeriako kidea.

18. Aitor Zuberogoitia kazetaria eta irakaslea.

19. Gotzon Garate idazlea.

20. Joan Mari Torrealda kazetaria eta soziologoa.

21. Andoni Egaña bertsolaria eta idazlea.

22. Luistxo Fernandez Interneten aditua eta euskaltzalea. ◀



1.054

bazkide gara dagoeneko Uztarrían; eskerrik asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarríari helarazteko aukerak:

► Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ► 227 posta kutxa, Azpeitia
► uztarría@topagunea.com ► Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ► www.uztarría.com

IZEN-ABIZENAK ►

NAN edo EHNA ►

HELBIDEA ►

HERRIA ►

TELEFONOA ►

E-MAILA ►

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ►

BAZKIDEAK ►

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

- Uztarría herri aldizkaria.
- Biografiak: Joxe Takolo eta Imanol Elias.
- Euskarazko prentsa eta Azpeitia liburua.
- Loiolarik ez balitz liburua.
- Otsobeltz liburua.
- Urrestillako musika taldeak liburua.
- Azpeitiarrak Espainiako Gerran liburua.
- Erdi prezioan: Mendi gida eta Azpeitiko efemerideak.

HARPIDEDUNAK ►

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

- Uztarría herri aldizkaria.

Komikibloga ▶



Blogak ▶

Hilda gero ere ordaintzen?



Hauteskundeak ate joka dira. Etxebizitzak izango dira programe-tako izar. Nik albiste hau irakurri dudanean, argi ikusi dut nolakoa nahi ez dudana: "102 urteko gizon bati 30 urtera ordaintzeko hipote-ka bat eman diote Erresuma Ba-tuan. 295.000 euroko prestamoa eman diote, eta hilean 1.500 ordaindu beharko ditu".

Tokate los pies. Barre egingo nuke, negar egitekoa izan ez balitz. Edo alderantziz

▶ Estitxu Elduaen

Inkesta ▶

Utziko al diote ezker abertzaleari maiatzeko

hauteskundeetan parte hartzen? (inpugnazioen aurretik)

%60,18 Bai

%39,82 Ez

Orain dagoen galdera. Joaten al zara herriko auzoetako festetara?



Bideoak ▶

Saihesbidea nondik nora

Gipuzkoako Foru Aldundiak apirilean jakinarazi zue-nez, udaberrian hasiko dira Azpeitiko saihesbide be-riaren obretako lehen faseko lanekin: Landeta-Atxu-biaga. 6,9 milioi euroko aurrekontua izango du eta

11 hilabeteen egitea aurreikusi dute. Azpeitiko Gaz-tetxeak saihesbidea joango den tokitik martxa anto-latu zuen orain aste batzuk, eta planoaren berri ere eman zuen. Uztarriak webean saihesbidearen non-dik norakoaz muntaia egin du bideo batean.

BESTE BI.

Asteotan beste bi bideo egon dira: **Inazio Arregiren desafioa eta Joxe Agirreren saioa 78 urte egin zituenean.**

JOAN...



Gurean ▶

MANOLO KABEZABOLO

▶ abeslaria

“Azpeitiko jendea oso jatorra da”

Manolo Kabezabolo espainiar (Zaragoza) abeslariak kontzertua eman zuen Azpeitiko Gaztetxean apirilaren 13an. Jarraitzaile ugari bildu zuen ekitaldiak.

Azpeitian izana al zinen lehenagotik?

Esan didatenez, herrian izana naiz, baina ez naiz gogoratzen noiz etorri nintzen.

Zer irudituz zaizu bertako jendea?

Oso jatorra, oro har.

Euskal Herria atsegin al duzu?

Bai, betidanik gustatu izan zaizkit bertako jendea eta paisaia.

Euskarazko hitzik ba al dakizu?

‘Ongi etorri’, ‘larunbata’... baina gehien erabili izan dudana hitza ‘gau-paseroa’ da. ◀



Abertzaletasuna ikusgai

Azpeitiko Batzokiak 100 urte beteko ditu aurten, abenduaren 1ean, Azkoitikoak ere bai aurten, eta EAJk ekitaldi sorta bateratua antolatu du. Hala, Azpeitian apirilaren 20an erakusketa ireki zuten, udaletxe azpiko aretoan. Garai bateko argazkiak, ikurrin zaharrak, hainbat erakunderen irudiak... egon dira ikusgai. Argazkian, herritarrak erakusketa ikusten.



Lan istripuak salatuz

Apirilaren 27an, LAB sindikatuak lan-istripuak salatzeko deitutako lanuztea jarraitu zuten eskualdeko lantegietan. Argazkian, Landeta auzoko errotondan zenbait langilek egindako elkarrateratzea.

Hezkuntza kalitatea saritzeko ziurtagiria

Jaurilaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Kalitatea Hezkuntzan ziurtagiria eman zion Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai ikastetxeari apirilaren 25ean Europa Jauregian, Gasteizen.



Apalantzaren marka berria

Gorka Apalantzak irabazi zuen apirilaren 21ean Ikasberri Azpeitiko Ikastolaren VIII. Rallysprintean. Marka berria ezarri zuen hirugarren txandatan: 07:07. Argazkian, Apalantza autoan orduan.



APIRILAK 10 ▶ Futbito txapelketaren hasiera Betharramdarretan. **APIRILAK 11** ▶ Patata tortilla lehiaketa VIII. Gazte Astearen barruan. **APIRILAK 14** ▶ Sagardotegira irteera, Gaztetxeak antolatuta. **APIRILAK 20** ▶ *Babel* filmaren emanaldia Betharramdarretan. **APIRILAK 21** ▶ Capoeira ikastaroa igerilekuan. **APIRILAK 22** ▶ Udal Musika Bandaren kontzertua plazan. **APIRILAK 29** ▶ Kitarista taldearen emanaldia Asteburu Musikalak egitasmoaren baitan. **APIRILAK 29** ▶ *Deja vu* filmaren emanaldia Betharramdarretan.



MAIATZAK 11 ▶ Aterkings-en kontzertua 22:30ean, Orkatz Kultur Elkarte. **MAIATZAK 12** ▶ Bidezko merkataritza azoka 10:00etatik 20:00etara. **MAIATZAK 12** ▶ El Visabueloren kontzertua 22:30ean, plazan. **MAIATZAK 18** ▶ *Piano bat bertsotan* saioa 22:30ean, Iraurgi Saskibalo Taldearen tabernan. **MAIATZAK 25** ▶ Bertso saioa: Jokin Uranga, Beñat Lizaso eta Haritz Etxeberria *Mini* Lasarte-Oriakoen aurka ariko dira. **MAIATZAK 26** ▶ Euskal presoaren eskubideen aldeko Elkartasun Eguna (Udalaren baimenaren faltan).



XOXOTEKO EGUNA, HILEKO AZKEN IGANDEAN.

Goizeko bederatziatan aterako dira mendizaleak plazatik. Eguerdian meza izango da eta, ondoren, dominak emango dizkiete haurrei. Egun guztian bertsolariak eta erromeria egongo dira.

MAIATZAK 27 ▶ 09:00etan ▶ Plazatik irtenda ▶ Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta

LUIS MARI KEREJETA ▶ Aratz-errekako Festa Batzordeko kidea

“Herritarrak Aratz-errekara etor daitezela animatzen ditugu”

Urtero bezala, San Isidro jaiak ospatuko dituzte maiatzean Aratz-errekan. Festa batzordeko laupabost kide apirilean hasi ziren jaiak antolatzen, eta dagoeneko egitarau zabala prest dute. Festei hasiera emateko suziria hilaren 15ean botako dute, San Isidro egunean, 10:00etan. “San Isidro eguna aste-guna tokatzen denean, komeriak izaten ditugu suziria botatzeko”, dio Luis Mari Kerejeta antolatzaileak. “Behin baino gehiagotan gaude suziria 7:30ean botata, lanera joan aurretik”.

Meza 12:00etan ospatuko dute, bazkaria 14:30ean eta mami-jana 20:30ean. Kerejetak argitu duenez, “mamia nahi hainbeste izaten da”. Ondoren, Saioa eta Alabier soinu-joleek animatuko dute gau giroa. Aurten, gainera, Aratz-errekako frontoiaren

50. urteurrena ospatuko dute. “Herritarrak Aratz-errekara etor daitezela animatzen ditugu”.

Maiatzaren 19an, Gazteen Eguna izango da. 8:30ean botatako suziriak emango dio hasiera egunari. “Bi egunetan hiru dozena etxafuego botatzen ditugu”, dio Kerejetak. Goizerako mendi irteera antolatu dute eta arratsalderako mus txapelketa. Afalostean lehiaketa “zelebrea” egingo dute: “Nork irentsi hiru arrautza eta zerbeza basoa azkarrago”. ◀

MAIATZAK 15 ▶
San Isidro jaiak.

- ▶ 10:00etan txupinazoa eta 20:30ean mami-jana.
- ▶ Aratz-errekan.
- ▶ Aratz-errekako Festa Batzordeak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

TENIS IKASTAROAK ▶
Kirolgune berrian

Goizez.

- ▶ 11:00etan (helduentzat).
- ▶ Asteartean eta ostegunean.
- ▶ Prezioak: 32 euro (bazkideek), 54 euro (gainerakoek).
- ▶ Udal Kirol Patronatuak antolatuta.



Arratsaldez.

- ▶ 18:30ean (12-14 urte); 19:30ean (15 urtetik gora).
- ▶ Astelehenean, asteazkenean eta ostiralean.
- ▶ Prezioak: 48 euro (bazkideek), 80 euro (gainerakoek).
- ▶ Udal Kirol Patronatuak antolatuta.



GALDERA

asko hauteskundeetan

Maiatzaren 27an izango dira udal hauteskundeak. Azpeitian ere ezingo dute denek aurkeztu: AASri ez diote utziko hemen. Gauza asko daude airean

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkiak: Leire Larrañaga

Honela hasi zuen Uztartia herri aldizkariak 2003ko maiatzean udal hauteskudeei buruzko artikulu sorta: "Demokrazia batean herritarrek aldi berean du bere agintariak aukeratzeko aukera eta eskubidea. Hego Euskal Herrian ez da halakorik gertatuko aurten, maiatzaren 25ean, milaka lagunek ezingo dituztelako legez -Espainiako Auzitegi Gorenaren arabera- ezkertiari plataforma abertzaleak hautatu, ez udaletan, ez foru aldundietan edo Nafarroako Legebiltzarrean. Azpeitiko Udalean, esatera baterako".

Azpeitian Habea balio gabe utzi zuten, Batasuna legez kanpoko alderdiarekin lotura zuela-koan. Hala ere, parte hartu zuen hauteskundeetan, eta bi mila boto zenbatu zituen. Dena den, legez ez du zinegotzirik izan.

Orain, maiatzaren 27rako, Azpeitiko Abertzale Sozialistak (AAS) utziko dute balio gabe

-Fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak hala eskatuta, Auzitegi Gorena asteburuan zen erabakia hartzekoa-. Abertzale Sozialista elkarte denek kontra jo dute eta EAE-ANVren 122 zerrenden aurka. Demokrazia?

► **EAE-ANV ALDERDIRA BOTOAK?** Munduan sektore gutxi egongo dira ezker abertzaleak adina hautes marka izan dituenak: HB, EH, AuB, Habea (eta beste plataformak), HZ, EHAK... Gora-beherak gorabehera, ezker abertzalearen botoa oso leiala izan da. Urrutira joan gabe, legez kanporatzeen edo baliogabetzeen aroan, Habeak 2.027 boto lortu zituen Azpeitian 2003ko udal hauteskundeetan eta EHAK-k 2.059 EAEkoetan duela bi urte.

Orain, maiatzaren 27ko udal eta foru hauteskundeetan Azpeitian EAE-ANV aurkeztuko da. Ezker abertzaleko alderdi historikoa inondik inora, 1930an sortu

zutelako, baina frankismoaz geroztik 1977an legeztatu zutenetik, behin besterik ez da aurkeztu hauteskundeetan, 1978tik 2001 arte HB koalizioan egon zelako. 1977an bertan aurkeztu zen, Espainiako Kongresukoetan, eta Azpeitian lau boto eskuratu zituen. Bistan da, ordea, hauteskunde hauek oso desberdinak direla harentzat, eta denentzat.

► GEHIENGO OSORIK BAI?

EAJk azkeneko legealdian, Habearen lau hautetsiak ez kontatuz gero, hamar zinegotzi izan ditu. Beraz, gehiengo osoa, horretarako bederatzi behar direlako.

Orain Azpeitian, EAE-ANV hor dagoela, zaila dirudi EAJk gehiengo osoa lortzea. 2003aren aurreko udal hauteskudeei begiratu besterik ez dago: EAJ zatitu zenetik bost udal hauteskunde izan dira, jeltzaleak lautan eurak bakarrik aurkeztu dira, eta lau horietatik hirutan ez dute lortu gehiengo

Talde txikirik?

EAJ, EAE-ANV eta EAz gain izango al da beste ordezkariak udaletxean? 1991tik 2003ra arte ez zen egon. Aralar-EBk, PSE-EEK edota PPK zinegotzi bat eskuratuz gero -zaila dirudi haietako bik erdiestea zinegotzi bana-, lortzen duen indar politiko hori erabakigarria izan daiteke udal gobernuaren osaketan, betiere EAJk gehiengo osorik ez izan eta ez balu EAekin lotuko akordioa.

Aralar duela lau urte ez zen aurkeztu Azpeitian. Orain bai, EB-Berdeekin. Beste boz batzuetako botoak kontuan hartuta, zenbakiek irteten diete zinegotzi bat lortzeko, baina Udalekoak beti dira desberdinak. EBk herrikoetan 113 botoko batez bestea lortu izan du eta Aralarrek Azpeitian 2003an Gipuzkoako Foru Aldundikoetan 298 lortu zituen; herrian, zinegotzi bat lortzeko, 360-420 boto behar izaten dira.

PSE-EEK eta PPK 2003an Habea baliogabe joa zelako lortu zuten bana. Bestela, 1983-1987tik Espainiako alderdien ordezkariak ez dute aulkirik izan udaletxean.

1979

Errola: 8.916 Abstentzioa: %35

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.297	11
EA (sortu gabe)	-	-
HB (ez parte hartu)	-	-
PSE	312	1
EE	1.169	4
Besterik	830	1 (EKA)

1983

Errola: 9.493 Abstentzioa: %39

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.737	12
EA (sortu gabe)	-	-
HB	683	2
PSE	446	1
EE	711	2

1987

Errola: 10.010 Abstentzioa: %28

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	2.940	8
EA	2.466	6
HB	928	2
PSE	274	0
EE	411	1

1991

Errola: 10.258 Abstentzioa: %33

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.305	9
EA	1.770	5
HB	1.038	3
PSE	226	0
EE	326	0



Azpeitiko alkategaiak, plazan, atzean udaletxea dutela: Iñaki Errazkin (EAE-ANV), Julian Eizmendi (EAJ), Manoli Uranga (PSE-EE), Juan Karlos Arellano (Aralar-EB/Berdeak), Manuel Unanue (EA) eta Julia Tercero (PP).

osorik. 1991n baino ez zuten eskuratu, baina orduan Eak -1.770- eta HBk -1.038- bien artean 2.808 boto besterik ez zituzten bildu.

Harrezkero, ezker abertzalea eta EA bien artean kopuru horretatik oso goian ibili dira: 1995ean 3.560 boto bienak batuta, 1999an 4.667, eta 2003an Habeak 2.027 -EA, EAJrekin aurkeztu zen koalizioan-.

Ezker abertzaleak berak azkeneko urteetan herrian bi mila botoko oinarria baduela ikusi da.

1999an EHk 2.923 boto eskuratu zituen, HBren -1995eko- udal marka onena baino 1.464 boto gehiago batuz. Habea balio-gabetua 2003an, ezker abertzalearentzat koiuntura oso txarra zenean, 2.027ra jaitsi zen, baina HBren marka hura 568 bototan gaudituz. Datu gehiago: HBk 1995ean 1.459 boto lortu zituen, lau zinegotzi eskuratu zituen, eta Habea 2003an gertu geratu zen bost lortzetik.

EAk, berriz, orain arte 1.700 botoko oinarria duela ikusi da:

udal hauteskundeetan 1999an lortu zituen boto gutxien -1.744-, lau zinegotzi eskuratu. 1995ean, 1.770 botorekin, bost zinegotzi.

Beraz, EAJk gehiago osoa lortzeko, 3.000 bototik oso gora ibili beharko luke, eta EAE-ANV -ezker abertzalearen hauteserreferentziak kontuan hartuta- eta Eak oso apal.

► **GEHIENGO OSORIKEZBA-LEGO?** Azpeitiko Udalean beti EAJk agindu izan du 1979tik.

Bera izan da beti hauteskundeak irabazi dituen, eta beti lortu izan du Alkatetza: gehiengo osoz, gehiengo sinplez, EArekin udal gobernuko akordioa eginda edo EArekin koalizioan aurkeztuta.

Maiatzaren 27an EAJk gehiengo osorik gabe hauteskundeak irabazten baditu, zer gertatuko da agintean? EArekin egingo al du berriro udal gobernu hitzarmena?

Azkeneko legealdia ikusita, oraingoz behintzat, gauzak ez daude erraz biontzat. Koalizioan aurkeztu eta gobernuan elkarrekin egon diren arren, EAK ezezkoa eman berri die arau ordezkartzaleei, San Martin zahar etxean jokabide desberdinak izan dituzte EAJk eta biek, kirolgunean ere bai, Loiola etorbide aldeko etxeez ere bai, EAJren jarrerak jendaurrean kritikatu izan ditu EAK...

EA sortu zenetik, EAJ eta biak elkarrekin gobernuan egon izan dira, baina ez beti. Orain ikusi egin behar zer egingo lukeen EAK. Hiru aukera leudeke: 1. EAJ gehiengo sinplean utzi, eta hartara gai bakoitza negoziatu harekin edo beste alderdiren batekin. 2. Eusko Lauraritzan hirukoa egoteak (EAJ-EA-EB) eragin handia duela-eta, atzera legealdiko hitzarmena egin jeltzaleekin. 3. EAE-ANVra jo, EAK bera ere "ezker abertzalekoa" dela esaten duela-eta.

Hor, gehiengo sinplearen kasuan, ikustekoa izango da EAE-ANVn nolako abildadea erakusten duen. Baita, zinegotzi bat lortuz gero, Aralar-EBk zer jokabide hartuko lukeen ere, edo PSE-EEK eta PPK.

Galdera asko.

1995

Errolda: 10.763 Abstentzioa: %31

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.030	8
EA	2.101	5
HB	1.459	4
PSE-EE	225	0
PP	287	0
IU-EB	89	0

1999

Errolda: 11.299 Abstentzioa: %31

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.141	7
EA	1.744	4
EH	2.923	6
PSE-EE	235	0
PP	351	0

2003 (Habea gabe*)

Errolda: 11.263 Abstentzioa: %26

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ-EA	5.459	15
PSE-EE	356	1
PP	355	1
IU-EB	138	0

2003 (Habearekin*)

Errolda: 11.263 Abstentzioa: %26

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ-EA	5.459	13
Habea	2.027	4
PSE-EE	356	0
PP	355	0
IU-EB	138	0


* Espainiako Auzitegi Gorenak balio gabe utzi zuen Habea

* Espainiako Auzitegi Gorenak balio gabe utzi zuen Habea ►►

JULIAN EIZMENDI ▶ EAJren alkategaia

“Erronkak ditugu eta udal gobernu indartsua nahi dut”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: Leire Larrañaga ▶ Marrazkia: Enok



BERRIRO?

Julian Eizmendi izan da azkeneko lau urteetan Azpeitiko alkate, Jose Mari Bastida EAJko alderdikideari lekukoa hartuta –18 urtean izan zen Bastida alkate–. Eizmendi beste lau urtez izango al da herriko Alkatezkan?

Bada papera Julian Eizmendiren udal bulegoan! Alkate izan da azken lau urteetan, eta proiektuekin segitu egin nahi du.

Pertsonalki zer moduz azken lau urteotan alkate bezala?

Azkar pasatu dira. Kargua gogorra da, dedikazio handia eskatzen duelako eta buruhauste handiak sortzen dituelako. Politikan, gainera, gehienetan egoerak tentsionatuak izaten dira, eta errespetuan oinarrituta egoera horiek baretzen saiatu naiz. Desgastea, batik bat, familiari begirakoa da. Nik seme-alabak 7, 11 eta 14 urtekoak ditut, haiei nahi baino dedikazio txikiagoa eskaini izan diet, eta haien garaian lau urteko saioa garrantzitsua eta eragin handikoa da. Emazteak eraman du, batik bat, etxeko zama hori.

Eta politikoki lau urteotako balantzea?

Gu sartu ginenean, gure taldea berria zen ia dena, erronka handiak genituen, arau osagarriak erabakitzea tokatzen zitzaigun herriaren garapena definitzeko hurrengo zortzi urteei begira... Lau urte hauek positiboak izan direla esango nuke, programa hein handi batean bete dugulako.

Zein izan dira arlo nagusiak?

Arau osagarriak onartzea, esate baterako. Etxebizitzena ere bai, aurreikusten diren etxetan teknikoek esandakoaren erdian ibili garelako: 1.250 planifikatu ditugu. Eta hor, hiru kontu garrantzitsu: etxe horien erdiak baino gehiago babestuak izango dira, eremuen berkalifikaziorik gabe eta etorkizuna hipotekatzeke.

Zer da etorkizuna ez hipotekatzeari?

Herriak Frantziskanetan terrenoak lortu ditu, pauso sendoa ema-

ten ari gara Gallardo Corrugadosen lekualdatzea egiteko, eta hemendik sei-zortzi urtera Udalean dauden erabakiko dute herriak nora hazi behar duen: Esklabak-Loiola aldera edo Frantziskanak aldera.

Etxebizitza babestuak aipatu dituzu, baina 2003an EAJ-EA koalizioak programan "herri-babespeko 200 etxebizitza eraiki (babes ofizialekoak -VPO-, salneurri tasatukoak eta etxebizitza sozialak)" zioen, eta ez dira egin...

Etxebizitza politikan pauso handiak eman ditugu epe motz eta ertainera begira: etxe zaharrak erosi ditugu berrizatzeko, hitzarmen urbanistikoak sinatu ditugu, lan handia egin dugu lur urbanoak lortzen (22.000 metro kuadro lortu ditugu legealdi honetan), eta alokairuan ere bai. Etxebeltz-larran babes ofizialeko 208 martxan daude, tasatuak ere bai (Enparan, kuartela, Nuarbe), Agirreneko babes ofizialeko 18 etxebizitza alokairuzko martxan ditugu, eta San Miguelen 46 babestu izango dira eta Iturri-Txikin 28.

Orain zer gauza zehatz agintzen du EAJk etxebizitza arloan? Kopururik jarriko al du programan?

Aurreko dena esanda, urtebeteren buruan 330 etxe babestu zozkatuko ditugula kalkulatu da. Bai, egia da 2003an EAJ-EAk esan genuela 200eko kopurua, eta askok esan zidaten argi ibiltzeko kopurua jartzearekin, hori bete egin behar delako. Nik udal-letxe honetan pasatu ditudan ordu gehienak etxebizitzaren arazoiari erantzuten pasatu ditut.

Arau osagarriez eta etxebizitza arloaz gain, beste zerbait nabarmentzeko?

Beste lau. 1. Soreasu biziberritzeko pausoak eman ditugu, kulturegunearekin-eta. 2. Parte zaharra biziberritzen ari gara. Beste lau urte pasatu izan balira hori dirurik sartu gabe, *ghetto* bihurtuko litzateke. 3. Poligono industrialak eraiki behar ditugu, garrantzitsua

Udalbiltza

"Ez dakit segituko dudan Udalbiltza-Udalbiden lehendakari izaten. Hauteskundeak pasatuta udal hautetsien biltzarra egingo da, hautetsi asko berriak izango dira, eta ni alderdiaren esanetara nago, 2003an bezala. Orain dela lau urte hauteskundeak maiatzean izan ziren eta, ondoren, Udalbiltzako lehendakari izateko esan zidaten; azaroan izendatu ninduten. Alkate asko gaude beste karguetan, eta niri hura tokatu zitzaidan".



“Oinarriak jarri bakarrik ez, proiektuak martxan ere jarri ditugu azkeneko lau urteetan”

“EArekin eta gure herri eremuan alde handiak daude, baina haiekin lankidetzan izatearen aldekoa naiz”

delako. 4. Bidegorrien sarearen plana onartu dugu eta hasi gara lanekin. Kutsadurako politikarako garrantzitsua izango da.

Lur industrialez, 2003an ere antzekoa zenioten, eta ez daude prest.

Baina legealdi honetan Larrin kalifikatzea lortu da eta plan partziala onartuta utzi nahi dugu. Datoren hilabeteetan hasiko dira lanean makinak. Han ere lurra pribatuak eta kudeaketa publikokoak izango dira.

Zure ustez, azken lau urte hauetan oinarriak jarri al dituzue herriaren garapenerako?

Oinarriak jarri bakarrik ez, martxan ere jarri ditugulako proiektuak: Etxebeltz-larran martxan dago, Agirre martxan dago, San Miguel ere bai (hitzarmena sinatua dugu, eta garatzen hasita), Soreasu, parte zaharra, bidegorria...

Zer asmo ditu EAJk hauteskunde-etarako?

Taxuzko taldea aurkeztea, herritarren ahal den konfiantza handiena lortzeko. Erronka handien aurrean gaude, etxebizitza politikarekin aurrera segitu nahi dugu, poligono industrialak garatu nahi ditugu eta Corrugadosen aldaketari behin betiko bultzada eman nahi diogu. Lau urte hauek erabakigarriak izango dira horretarako.

Baina emaitzei begira, zer helburu edo asmo?

Orain dela lau urte konfiantza handia lortu genuen, eta orain berriro lortzea da asmoa.

Duela lau urte EArekin aurkeztu zineten. Orain aparte zoazte biok. Bakarrik aurkeztea ona al da zuentzat?

EAJ EArekin koalizioan joatearen aldekoa izan da. Eta planteamendu orokorreaz ari naiz. Hau da, jendeak bakea eta normalizazio politikoa eskatzen ditu, aterabideak integratu izan beharko du ezinbestean, giza eskubide den

errespetuan eta herri honen erabaki eskubidean oinarrituta, eta aterabide horren berme EAJk eta EAK islatzen duten esparrua da. Horregatik, eta zentralitatea indartzeko, lankidetzan beharko lukete bi alderdiek.

Azpeitira etorrita, ordea, EAK eta EAJk desadostasun garrantzitsuak izan dituzte azkeneko legealdian.

Hori begien bistakoa da. Aldeak egon dira, herri eremuan alde handiak ditugu EAJk eta EAK. Lehen aipatutako erronkei aurre egiteko, gure alderdiak ahal den indartsuen atera behar du.

Irabazteko asmoa bai? Eta irabaziz gero, gehiengo osorik?

Ez zait gustatzen pronostikoak egitea. Ondoren udal gobernua osatzeko ardura badugu, saiatuko gara adostasunak aurkitzen. Garbi dudana da garrantzitsua dela udal gobernua indartsu izatea.

Zeinekin nahi duzue akordioa egitea?

Programan bat jartzen garenarekin. Denekin saiatuko gara. Eta goi-estrategiari ere begiratu behar zaio, Eusko Jaurlaritzan EAJ, EA eta EB bat eginda daudelako.

AAS balio gabe utzi dute...

Alderdien Legearen kontra egon gara eta gaude. Esparru horretako jendeak legalki erakundeetan islatuta egon behar du. Politikoki ez dudana onartzen da egoera horren errudun EAJ edo besteak jotzea. Erantzule nagusia ETA da, eta ETAr hori esan egin behar diogu, denok. Kolpe handia izan zen ETArekin Madrilgo atentatua, baita ondoren ateratako komunikatuan eta emandako elkarrizketan esandakoa ere.


Eta horrekin zer ikusteko du hauteskundeetan egon nahi duen ezker abertzaleak?

Esan dut ezker abertzaleak islatzen duen esparru sozialak erakundeetan legalki egon behar duela. Hori garbi daukagu. ETA aipatu dut lehen, egoeraren erantzule nagusia bera delako. »

IÑAKI ERRAZKIN ▶ EAE-ANVren alkategaia

“Ezker eta abertzale botoak bildu nahi ditugu, anbizioz”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: Leire Larrañaga ▶ Marrazkia: Enok



GAZTEENA.

Azpeitiko alkategairik gazteena da Iñaki Errazkin; 31 urte ditu, eta hurrengo gazteena Juan Karlos Arellano da —44 urte—. Ez da Errazkin, ordea, eskarmenturik gabeko politikaria, azkeneko lau urtean Habeako hautetsi izan delako.

Utziko al diote aurkeztzen EAE-ANVri? Bai? Ez?... Horrela ibili da Iñaki Errazkin, kanpainako lana baldintza horietan egiten.

Zer dela-eta aurkeztuko da EAE-ANV Azpeitian?

EAE-ANVk hasieratik esan du ez duela beste alderdirik ordezkatzeko, bere kabuz aurkeztuko dela. EAE-ANVk bere estatutuak ditu, bere arduradunak, bere antolaketak, eta bere proiektua ere bai. Azpeitian AASri ez diotenez utziko aurkeztzen, hutsunea sortuko litzaiteke, eta guk pausoa ematea erabaki dugu, sentsibiltate horretarako herritarrek bozkatzeko aukera izan dezaten.

Azpeitian jendeak pentsa al dezake, beraz, hauteskundeetan sektore guztiak daudela?

“EAE-ANV hor dago eta bale”, esan dezakete. Badirudi hori pentsatuta, legeak kanporatzeak eta balio gabetzeak ez dutela garrantzia hartzen. Gure ustez, hori akats nabarmena da, herri honen zati bati eskubideak ukatzen dizkiotelako etengabe. Denek izan behar dute hauteskundeetan egoteko eskubidea eta bertan egoteko aukera, inolako oztoporik gabe, eta Euskal Herrian ez da hori gertatzen. Azpeitian AASK 1.049 sinadura lortu ditu baina ez diote utziko aurkeztzen, eta gure elkartasun guztia helarazi nahi diogu. EAE-ANVko 122 zerrenda ere egoera berean daude.

Udal hauteskundeetan eta gero, zer eskaintzeko edo egiteko zaudete?

Edozeinek gure zerrenda ikusten badu, ohartuko da Azpeitiko ezkerreko eta abertzale jendea gara, herriko mugimenduetan ibilitakoak. Hori dela-eta, azpeitiarrei proiektu ezketiar eta abertzalea

eskainiko diegu hauteskunde hauetan, eta hori aurrera eramaten saiatuko gara legealdian.

Nola ibili zarete programa egitean?

Gure ideiei eta filosofiari eutsiz, jendearen eta eragileen ekarpenak jaso ditugu. Garbi dugu zer nahi dugun: herri honek alternatiba bat behar du, eskubiak urte asko daramatza Udalean agintzen eta horren ondorioak nahiak kezkarriak dira. Saiatuko gara alternatiba izaten, bai udaltxean eta bai kalean. Horretarako, balio gabe utzi dituzten hautagaiekin elkarlanean ariko gara.

Eta nolako programa egin nahi izan duzue?

Garrantzitsua da herri ereduaz hitz egitea, ulertzea nolako eredu nahi dugun, gero arlo bakoitzean filosofia hori segitzeko.

Zein da zuen herri eredu hori?

Azpeitian gaur egun dagoen ereduarekin ez gaude inola ere ados, eskubikoa delako: erabakigunak Udalean baino ez daude, eta funtzionamendua bertikala eta hierarkikoa da; hirigintza zementuan oinarritzen da, zentzugabeko garapena daramate eta interes ekonomikoak lehenesten dituzte (negozio handiak daude)... Guk, aldiz, funtzionamendu zabalagoa nahi dugu eta herritarren beharrak kontuan hartutako herria egin nahi dugu.

Zehaztuko bazenu...

Funtzionamenduari dagokionez, trantsizioa egin nahi dugu. Hau da, erabakigunak udal batzordeetan zentralizatuta daude eta horri kanpo, gehienez ere, aholku batzorde batzuk daude (euskaran, kulturean...), baina aholku batzorde horietan ez dira erabakiak hartzen. Gure ustez, Udala deszentralizatu egin behar da, trantsizioa diseinatzeko horretarako. Hala, herriari buruzko erabaki batzuk Udala ez den beste gune batzuetan hartzen joan behar da: gazterian, kulturean, euskaran, kirolan, auzoetan, arloetako aurrekontuei buruz, diru laguntzen inguruan, proiektu zehatzen inguru-

Azkoitiko

"Azkoitiko Udalean garbi ikusi da nahi izanez gero badagoela aukerarik ezker abertzalea bertan izateko, baina alde horretatik Azpeitian ere ez dute ezer egin EAJk eta EAK. Azkoitiko Hego Euskal Herriko erakunde denetan egin izan balitz, Alderdien Legea bera geratuko litzateke ballorik gabe. Ez badugu konpromiso garbirik hartzen, arazo horrek hor segituko dugu. Herrietan dagoenez arazoa, herrietan hartu behar da konpromisoa, gora begira egon gabe".



AASren

sentsibilitateko jendeak bozkatzeko aukera izan dezan eman dugu pausoa guk"

"Akordiorako, prozesu politikoa, udal parte-hartzea eta gizarte beharrak hartuko ditugu kontuan"

ruan... Udal batzordeak irekiak izatea ere planteatzen dugu.

Zehaztepenekin segituz, beste alderdi denek bezala, EAE-ANVk ere etxebizitzari garrantzia ematen al dio? Zuek ere Loiola alderako proiektua bultzatzen al duzue?

EAJk eta EAK, biek egiten dute Loiola aldeko proiektuaren alde, era batera edo bestera. Guretzat, planteamendu okerra da hori. Batetik, bai, Loiolako izen-ematea egindakoan babes ofizialeko etxeetarako 400-600 eskaera izan dira, baina Udalak oraindik ez daki benetan azpeitiarren artean etxebizitza eskaera nolako den

kopuru edo etxebizitza mota aldetik, azterketa hori egin gabe duelako. Hala ere, Loiola bezalako eremu berdea etxez jostera doaz. Eta, bestetik, bitxia da: urteetan ez dituzte Azpeitian babestuko etxeak egin eta orain, berriz, udaltxean agintean dauden alderdiak kopuru gerra batean bezala daude: batek esaten du

Loiola aldean horrenbeste etxe babestu egingo dituela eta besteak hainbeste. Eta orain arte zer? Beraiek egon dira udal gobernuan! Dena dela, udal honek gero ez du konplexurik bere lurretan 200.000 euro pasako prezioa duten etxebizitzak egiteko; kuartel zaharrean, adibidez. Ez dugu nahi halako eredurik.

Loiolako irtenbidea "okerra" dela diozu. Baina nola eman irtenbidea, zuen ustez, etxebizitzaren beharrari?

Ez Loiola aldean etxeak eginda, baizik eta hurrengo urteotan herriaren kaskoan edo inguruetan etxeak zaharberrituta edo berriak eginda. Aukera badago, lekua badago. Arau ordezkatzailaetan hurrengo urteetan leku horietan 600 etxebizitza egitea planteatzen da. Horretaz gain, etxe hutsak ere badaude herrian: mila.

Etxe horien jabeekin lan bat egin beharko litzateke, etxe asko modu onean alokairu jartzeko, benetako politika eginez.

Frantziskanetako eta Gallardoko lekua ere aipatzen da...

Eta, gure ustez, datozen urte hauetan etxebizitzak, lehen esan bezala, kaskoan edo inguruetan egin eta gero, herriak Frantziskan aldera hazi beharko luke, ez Loiolara. Baina zer nahi dute EAJk eta EAK etxeak Loiola aldean eginda? 'Azpeitia-Azkoitia hiria' deitutakoa bultzatzea. Begira saihesbidea: Landetatik Txerloira doa, eta haiek hor barruan inguruan dena urbanizatu egin nahi dute, negozio potoloei bide ematen segitzeko.

Programako beste puntu garrantzitsu bat?

Askok ditugu. Adibidez, lur industrialetan, nekazaritzako lurrak ez alferrikaldu eta daudenak erabiltzea; Goena, esaterako. Kirolan, berriz, herriko taldeentzat zentro bat eraiki nahi dugu, Garmendipe futbol zelaiaren harmaila nagusiaren atzeko terrenoan. Hau da, Gaztetxea badago, Zapo Txoko ere bai, Aitonena ere bai, gero kulturagunea egin nahi da... eta kirolarentzat, aldiz, ez dago bilgunerik. Kirol taldeak elkarrekin egoteak onurak sortuko litzuke.

Hauteskundeetan zer lortzea espero du EAE-ANVk?

Anbizioarik handienarekin aurkeztuko gara. Ezkerreko eta abertzale jendearen botoak EAE-ANVren inguruan biltzeko beharra dago.

Inork gehiago osorik?

Ez.

Eta orduan zer?

Geure proiektua aurrera ateratzeko, udal gobernuan egoteko asmoa dugu.

Zeinekin, ordea?

Adostasunerako, hiru puntu jartzen dizkiegu beste alderdiei mahai gainean: prozesu politikoren alde pausok emateko borondatea izatea, parte-hartzearen aldeko udal funtzionamendua, eta gizarte beharrak lehentsiko dituen herri ereduak.

EAJ



Julian Eizmendi
49 urte. Aldundiko
teknikaria



Ana Mendizabal
50 urte.
Irakaslea



Jose Urbistondo
64 urte.
Kudeatzailea



Jabier Altuna
40 urte.
Irakaslea



Nerea Aldai
24 urte.
Ingeniaria



Iñaki Etxezarreta
59 urte.
Langilea



Julian Kortajarena
49 urte.
Langilea



Onintza Etxeberria
36 urte.
Irakaslea



Aitor Gorrotxategi
31 urte. Bankuko
langilea



M. Dolores Udabe
61 urte.
Etxeko lanak



Onintza Zeberio
32 urte.
Irakaslea



Xalbador Gorostola
59 urte.
Kudeatzailea



Alaitz Lizarralde
33 urte.
Informatikaria



Gregorio Aldai
66 urte.
Langilea



Inaxita Aranaga
59 urte.
Etxeko lanak



Pedro Illarramendi
68 urte.
Administraria



Teresa Urbieto
47 urte.
Administraria

ORDEZKOAK

18. Maria Jesus
Aranburu

19. Begoña
Sudupe

20. Jose Ramon
Garate



EAE-ANV



Iñaki Errazkin
31 urte.
Langilea



Leire Lazkano
37 urte.
Langilea



Xanet Esnaola
31 urte.
Langilea



M. Arantxa Isart
49 urte.
Langilea



Haizkurgi Uzin
29 urte.
Langilea



Leire Ibaguren
28 urte.
Langilea



Ioritz Aizpuru
23 urte.
Langilea



Maixel Rezola
36 urte.
Langilea



Iñaki Urkia
56 urte.
Pensionista



M. Luisa Kerejeta
65 urte.
Etxeko lanak



Aitor Zulaika
29 urte.
Langilea



Maria C. Artola
46 urte.
Langilea



Jose M. Galarra
48 urte.
Langilea



Begoña Elias
58 urte.
Erretiratu



Angel Oiarzabal
41 urte.
Langilea



Eneka Urbieto
22 urte.
Ikaslea



Xabier Gorrotxategi
33 urte.
Langilea

ORDEZKOAK

18. Ilazki
Albizuri

19. Ibon
Etxezarreta

20. Ana Uzkudun



EA



Manuel Unanue
54 urte.
Ekonomilaria



Mikel Ibarzabal
(independentea) 54 urte.
Langilea



Kontxita Martija
59 urte.
Administraria



Kandido Mitxelena
54 urte.
Administraria



Idoia Egiguren
40 urte.
Informatikaria



Agustin Lizarralde
44 urte.
Bideo egilea



Santos Merino
(independ.) 40 urte.
Langilea



Antton Orbegoza
(independ.) 52 urte.
Komertziala



M. Angeles Korta
(independ.) 52 urte.
Langilea



M. Lurdes Ibaguren
(independ.) 58 urte.
Langilea



Joxe Mari Larrañaga
46 urte.
Langilea



Manuel Agirre
60 urte.
Enpresaria



Inaxita Bereziartua
65 urte.
Langilea



Iñigo Letamendia
45 urte.
Langilea



Patxi Azkargorta
81 urte.
Pilota maisua



Arantxa Sarasua
65 urte.
Dendaria



Joxe Lizaso
80 urte.
Bertsolaria

ORDEZKOAK

18. Maria
Unanue

19. Mertxe
Uribarren

20. Esteban Uzin



Aralar-EB/Berdeak



Juan K. Arellano
44 urte.
Irakaslea



Miren Garmendia
47 urte.
Pentsioduna



Camino Saiz
(independentea)
44 urte. Irakaslea



Miren I. Alcedo
44 urte.
Funtzionaria



Jose Luis Bastida
(independ.) 47 urte.
Elektrikaria



Maite Garmendia
(independ.) 50 urte.
Irakaslea



Isidro Elordi
48 urte.
Teknikaria

BESTE ZERRENDAKIDEAK (*) ▶

2. Jose Antonio Esnal 4. Juan Luis Sanchez 6. Jose Maria Font 8. Miguel Paulogorran 10. Helena Ocaña 12. Isaías Lopez 14. Josefa Sanchez 15. Jose Francisco Agirre (independ.) 16. Ana Garcia 17. Juan Jose Perez

ORDEZKOAK ▶ Ez dituzte



PSE-EE



Manoli Uranga
53 urte.
Etxekolanak

BESTE ZERRENDAKIDEAK (*) ▶

2. Maria Concepcion Neira 3. Alfonso Santibañez 4. Andres Moreno 5. Eneko Parra 6. Ana Rosa Uranga 7. Vicente Rojo 8. Maria Aranzazu Gerriko 9. Roman Rico 10. Manuel Venegas 11. Manuel Rodriguez 12. Ana Garcia 13. Manuel Arellano 14. Jesus Maria Garcia 15. Maria Belizanda 16. Maria Carmen Manguan 17. Jose Maria Diez

ORDEZKOAK ▶ Ez dituzte



PP



Julia Tercero
55 urte.
Erizaina

BESTE ZERRENDAKIDEAK (*) ▶

2. Jose Eugenio Azpiroz 3. Ana Maria Leal 4. Rafael Ignacio Jauregizar 5. Ramon Gonzalez 6. Maria del Carmen Diaz 7. Orlando Cabrera 8. Santiago Serrano 9. Manuel Arquerio 10. Maria Antonia Ruiz 11. Elena Calles 12. Jaime Benavente 13. Juan Monzon 14. Maria Victoria Corral 15. Ignacio Touza 16. Maria Jose Lanza 17. Rodrigo Armand Aso

ORDEZKOAK ▶ 18. Raquel Zorrilla 19. Alberto Flores 20. Catalina Galea



(*) Oharra. Aralar-EBk, PSE-EEk eta PPK e z dute argazki gehiagorik argitaratu nahi izan

AAS ▶ (Fiskaltzak eta Estatuaren abokatuak balio gabe uzteko eskatu dute; Auzitegi Gorena asteburuan zen erabakitzekoa)



Aitzol Iparragirre
31 urte.
Langilea



Irene Valverde
46 urte.
Langilea



Jose Luis Otamendi
48 urte.
Langilea



Ainara Betegi
29 urte.
Langilea



Anjel M. Etxeberria
38 urte.
Langilea



Maria Olatz Arrue
58 urte.
Etxeko lanak



Gari Mendiola
24 urte.
Langilea



Maider Egiguren
30 urte.
Langilea



Joxe Mari Aizpuru
55 urte.
Langilea



Arantxa Oñederra
51 urte.
Langilea



Iñigo Orbegozo
33 urte.
Langilea



Mari Karmen Uria
52 urte.
Etxekolanak



Julen Arrieta
27 urte.
Langilea



Trini Orbegozo
35 urte.
Langilea



Joxin Arruti
46 urte.
Langilea



Mirari Amenabar
29 urte.
Langilea



Gari Armendariz
28 urte.
Langilea

ORDEZKOAK ▶

18. Arantzazu Aranburu 19. Iñaki Arbeo 20. Mirian Arrieta



Zer dio? ▶

Egoera ez-demokratikoa

Aitzol Iparragirre

(AASko zerrendaburua)

Garbi esan behar da: maiatzaren 27ko hauteskunde hauek ez dira demokratikoak izango, Batasunari, ASBri eta hautesle elkartei ez dietelako utziko aurkezten. Ezker abertzaleak argi esan du zein den bere apustua, mahai gainean jarri zuen ASB legezko

pauso denak emanda, mahai gainean jarri zuten hautesle elkarteak 82.500 sinadura lortuta –Azpeitian 1.049–, baina ezker abertzalekook ezin dugu aurkeztu. Espainiako 'Justiziak' ukatu egin digu eskubidea. Egoera ez-demokratikoan bizi gara, larrian eta kritikoan.

Denok pentsatu behar dugu egoera honi nola ematen diogun buelta. Espainiako Alderdien Legeak herri honen zati bati bere

eskubideak baliorik gabe uzten dizkio, eta lege hori bertan behera utzi behar da. Horretarako eta prozesu demokratikoa martxan jartzeko, ezker abertzalea prest dago egin behar duen guztia egiteko. Besteak ere bai? Zer konpromiso hartzeko prest daude beste alderdiak eta eragileak?

Duela lau urte ere Azpeitian ezker abertzaleko plataforma baliorik gabe utzi zuten –Habea–, Euskal Herrian beste 250 inguru ere bai, eta lau urtera berriro egoera berean gaude. Ezker abertzaleak, dudarik gabe, pausok eman ditu. Besteek?

▶

MANUEL UNANUE ▶ EAren alkategaia

“Programen arabera, aukera guztiak dira posible”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: Leire Larrañaga ▶ Marrazkia: Enok



LEHEN ALDIZ.

Maiatzaren 27an hautatua izaten baldin bada, hirugarren legealdia izango du Manuel Unanuek Azpeitiko Udalean, 1987-1991 eta 2003-2007 bitartean zinegotzi izana delako. Aurreneko aldia du, ordea, alkategai bezala.

Udaletxeko bere bulegoan dago Manuel Unanue, eta horman 2003ko EAJ-EAren programa du zintzilik. Maiz aipatu du.

Oraingoan, EA bakarrik aurkeztuko da, 2003an ez bezala.

Herriaren aurrean azken lau urtean egindako lanarekin aurkeztuko gara, eta beste lan batzuk egiteko asmoekin. Kreditu bat eskatzera goaz herritarrei, baina lau urteko abalarekin; gainera, talde tinko eta sendoarekin. Bakarrik joateak ematen dizu askatasun hori. Hori, hauteskunderen aurretik. Eta gero ere bai, era bateko edo beste akordioak egiteko. Herri politikagintzan ez gara atzo jaiotakoak.

Azpeitiko azken lau urteak ikusita, logikotzat jo al daiteke EA eta EAJ euren kabuz aurkeztea? Izan ere, biok desadostasun handiak izan dituzue gairantzitsuetan: San Martin zahar etxean, arau ordezkatzaillean...

Egia da gauza garrantzitsuak egin direla EAJren eta EAren artean, baina eman diezaiozun begiratu bat programari eta gauza asko ez dira bete, edo EAJk ez du bete programa.

Esate baterako?

Adibidez, EAJk eta EAk 2003ko programan Gizarte Zerbitzuetan jarri genuen eraikin bat egitea, eta bat esaten duzunean, bat esaten duzu, ez bi. EAJk, ordea, bigarrena egin nahi izan du. Guk bat, San Martin zaharren etxea indartuz. Eta bukatzeardago eraikina. Gaur eta geroko zerbitzu jator baterako oinarri sendo bat jarri dugu han.

Beste adibiderik?

Kirolgunea. EAJ-EAk programan jarri zuen kirolgunea bultzatu egin

behar zela, belar artifizialeko ze-laia eginez, atletismo pista, tenis eta paddle pistak... baina gero atletismo pista ez baduzu egiten, ba... Guk egin nahi genuen atletismo pista, EAJk ez. EAK Azpeitiko kirol erakunde denen babesa jaso zuen, eta haiek ere badute gure iritziz esatekorik, baina EAJk ez ditu kontuan hartu. Guk hori ezin dugu onartu. Herrigintza beste modu batera egin behar da, herriko taldeek parte hartuz.

Etxebizitzaren gaia ere hor dago. Loiolako etxei buruz ez zarete ados jarri EAJrekin.

Ez, eta koalizioaren programan jarri genuena ez dugu bete. 2003ko programan jartzen du "herri-babespeko 200 etxebizitza eraiki" nahi zirela. Ez dira eraiki. Bai, martxan daude, egingo dira, baina ez dira egin. Gauzak ez dira ondo egin; ezta hurreratu ere, gainera. EAJrena da hor ardura nagusia.

Baina zuek Loiola aldean ere etxeak egin nahi dituzue.


Azpeitian etxebizitzaren arazoa latza da. Eskaera handia dago babesekoena-eta (600 herritar pasak eman du izena Loiolan), eta horri aurre egiteko lehen neurri garrantzitsu bezala hori proposatu dugu, Loiolako bi aldeetan etxeak egitea. Hor etxeak egiteko aukera dago eta lekua ona da –jendea bizitzera ezin duzulako mendira bidali–. Gainera, etxe gehienek kudeaketa Udalak izatea proposatzen dugu, espekulazioa saihesteko. Han berehala etxeak egin daitezke, Udala lur sail baten jabe delako. Alkateak hemen emandako hitza jan egin du. Zergatik? Interes pribatuak herri interesei gain hartu al diete? Eta etxebizitzaz ari garenez, esaten dugu alokairuzkoak sartu behar direla, apartamenduak, babesekoak, tutelatuak, libreak...

Herriak Loiola aldera hazi beharko luke, hortaz, zuen ustez.

Orain bai. Baina gero, bigarren garapen fase garrantzitsu bezala, Frantziskanak eta Gallardo enpresa aldera. Orainxe dela egun

Onartu ezin

"Azpeitian batzuek azkeneko legealdi honetan Eusko Alkartasunako zinegotzi baten kontra jardun dute, Iñaki Larrañagaren kontra hain zuzen ere, eta honek azkenerako utzi egin zuen. Iñakiren umeei beragatik kalean egundokoak esan dizkiote, aita zinegotzia zelako. Kakotx artean jarrita, 'torturatu' egin dute Iñaki. EAKook ez dugu halakorik onartu, ezta onartuko ere. Horregatik, hemen gauza batzuk aurrez argi eta garbi jarri beharko dira aurrerantzean".



Udal gobernuan

egon arren, EAJk ez gaitu kontuan hartu; jokabidea aldatu beharko du"

“Gehiengo osorik ez badago, gauzak adostu beharra Azpeitiarentzat aberasgarria izango da”

batzuk jakin denez, Udalak Frantziskanen lurra eskuratu ditu. 18.000 metro kuadro izango ditugu han etxeak-eta egiteko hemendik zortzi-hamar urtetik aurrera, Udalak berak kudeatuko ditu lurra. Zortzi bat urtera Gallardoko fundizioa Badiolegi alde-ara pasatzen denean, askoz leku gehiago izango dugu.

Zer egiteko?

Aukera handiak emango dizkigu espazio horrek denak. Besteak beste, esparru berdea egiteko, ekipamenduak, San Martin zaharren etxea bete eta gero alde hartara hazteko –gure ustez, zerbitzu integrala emanez: eguneko zentroak, edadetuentzat as- teburuko gelak eta abar–...

Aipatu beste bi arlo.

Kultura eta aste bukaera- tako txikizioa-eta.

Kulturaren zer?

Hor, bi atal: bate- tik, azpiegiturak eta, bestetik, eus- kara eta kultur era- gileen arteko akor- dioa. Azpiegituratan, hor dugu Soreasu, hu- rrengo legealdi erdirako- edo bukatu beharrekoa, eta San Agustinpe ere bai –ea nolakoa egiten den azkenean–. Eragileen arteko akordioari ere garrantzia ematen diogu. Izan ere, kultura eta euskara ez dira inoren patrimonio, baizik eta denona, eta Azpeitian arlootan desadostasunak egon dira urteot- tan. Guk gutxieneko akordio oro- korra lortu nahi dugu denekin.

Zer da aste bukaeratakoa?

Orduan herrian egoten diren txiki- zio, zikinkerik eta iskanbilak, han- diak izaten dira. Horra begira zer- bait egin nahi dugu gazteekin, ikastetxeekin... Errespetuzko eta bizikidetzako kontzientzia sortu nahi dugu, gune zabala eratuz, aktibitate batzuk sortuz eta, bes- teak beste, drogen kontra buru- belarri sartuz, Azpeitian droga asko sartuta dagoelako (pasti- llak...). Gaurko egoera hau zuzen- du beharra dago.

Inork lortuko al du gehiengo osorik Azpeitian?

Ez. EAJ, aurrena geratzen bada, ez da arrimatu ere egingo gehien- go osora. Legealdi honetako es- perientzia ikusita, oso txarra litza- teke EAJk gehiengo osoa izatea. Orain izan du, eta gu, udal gober- nuan egon arren, ez gaitu kon- tuan hartu.

Pronostikorik?

Ez, baina oso borroka gogorra joango da.

Zeinen artean?

Lehen posturako ez da alde han- dirik egongo. EAJ, EAE-ANV eta EAren artean egongo da.

Eta gero zer?

Elkarrekin lan egin beharko dela eta, beraz, akordioak lortu behar- ko direla. Zenbaitek, bere harro- keri alde batera utziz eta bestea- ren beharra duela ikusiz, plante- amenduak zentzuzkoagoak eta ar- giagoak egin beharko ditu. "Nik agintzen dut eta nik esandakoa egingo da" pentsatzen duenik bada.

Zer jokabide har dezake EAJk aipatzen duzun kasu horretan?

Ez dakit, baina oraingo alkateak jokabidea aldatu beharko duela zalantzarik ez dut. Guk denek programak aztertu eta horren ara- bera jokatu dugu, lau urterako gutxienekoak adostuz batekin edo bestearekin. Gure lehen hel- burua Alkatetza lortzea da. Bai, zaila da. Baina gure bigarren hel- burua udal gobernuan sartzea da, eta ikusi egin beharko beste- ek zer proposatuko diguten, guk haiei zer... Elkarri ezingo diogu ezinezkoa eskatu, eta adostu behar hori Azpeitiarentzat aber- asgarria izango da. 2003tik honakoa ez da halakoa izan, EAJ gehiengo osoarekin nahierara aritu delako.

Beraz, ez al duzu baztertzen hurrengo legealdian EAE-ANVrekin bat egitea?

Inola ere ez. Aukera denak dira posible: EAE-ANV EAJrekin bat egitea, guk EAJrekin, guk EAE-ANVrekin.

JUAN KARLOS ARELLANO ▶ Aralar-EB/Berdeen alkategaia

“Azpeitian ezkerreko jendea ere badela erakutsi nahi dut”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: Leire Larrañaga ▶ Marrazkia: Enok



Juan Karlos Arellano prestatu da aurrena Uztarriarekin el-karrizketa egiteko. Hitz egiteko, behintzat, gogoia dauka.

Nolatan sartu zara politikan?

Neuk ere ez nuen uste inondik inora politikan bukatuko nuenik. Neure inguruak horixe galdetzen dit, ea nolatan sartu naizen. Miren Garmendia Aralarrekoa neure laguna da, eta haren kezka ugari entzun izan dut. Asko hitz egin dugu eta asko hausnarrarazi dit.

Politikan sartu, eta zerrendaburu.

Hauteskundeetan zerbait izatekotan, zerrendaburu izango nintzela garbi nuen, sartzekotan buru-belarri sartu nahi nuelako, betiere zerbait egiteko udal-txean.

Eta nolako lana egin nahiko zenuke?

EAJkoei esatea eta erakustea: “Aizue, hemen zuetatik aparte, ezkerreko jende bat badago”, eta ahal dudana egingo dut halako politika egiteko, haien jokabidea behar bezalakoa izan dadin bermatzeko, beharrik handiena dutenen alde egiteko...

EB-Berdeek ez dute behin ere lortu zinegotzirik Azpeitian.

Aralar ez da inoiz aurkeztu udal hauteskundeetan herrian.

Zinegotzia lortzeko asmorik?

Bai. Guk uste lortuko dugula zinegotzi bat, ateratzen zaizkigu zenbakiak. Gainera, zerrendaburu izango naizela esan genuenetik, jende askok esaten dit bozkatuko gaituela; harritu egin naiz zenbatek esan digun ikustean.

Helburu handiagorik?

Ez, betiko bototik ez delako aldaketa handirik izaten. Zinegotzi bat ateratzea da gure helburu erreala.

Ezagutzen herrian EBkorik?

...ETA INPLIKATU.

Lagunekin euren kezkez hitz egiten hasi, segitu, sakondu... eta politikan inplikatzera iritsi da Juan Karlos Arellano, alkategaia delako. Aurretik politikan ibili gabea da izan arren, behin hor sartuta, zerrendaburu izan nahi zuen.

Ezta aztarrenik ere zein diren. Esan digute Azpeitian EBren pare bat afiliatu badirela baina ez dutela zerrendatan azaldu nahi.

Beraz, Azpeitiko programa Aralarrek baino ez zuen egin-go...

Bai. Dena dela, erreferentzi batzuk jaso ditugu. Ez zitzaidan ondo iruditzen Aralarrek soilik egitea. Donostiako koalizio programa aztertu dugu —oso-oso ondo egina dago— eta hartu ditugu gauza batzuk.

Aralarreko zerrenda osatzeko nola ibili zarete Azpeitian?

Jende gehiagok eman digu babesa, baina ez dute nahi zerrendan azaltzerik: familiako arazoak direla...

Orain arte non mugitu zara politikoki?

Hil zen lagun batek esaten zuen bera independentea zela baina beti ezkerrekoa. Zentzu batean, hala definitzen naiz. Ni kanpoan bizi izan nintzen bi urtean eta, nire ustez, inguru honetatik kanpora irtetean abertzaletasuna desagertu egiten zaizu nolabait, eta horrek ere markatu izan nau; orduan, ezkerreko joera horrek gaina hartzen du. Bestetik, sekula ez dut sinistu alderdi politikoetan; izan ere, alderdiak betiere xurgatzen zaituen zera horrekin...

EB ez da abertzalea, Aralar bai...

Bai, eta hori da koalizio honen kontraesanetako bat. Baina gainditu egin beharko dugu.

EAE-ANV hauteskundeetan izango da. Azpeitian oraingoa inork lortuko al du gehiengo osorik?

Ez.

Kasu horretan, eta zuek zinegotzi bat lortuz gero, zer asmo?

Gerta liteke: bloke batek (EAJK) zortzi zinegotzi lortzea eta beste bloke batek (EAE-ANV eta EAK) beste zortzi. Bi blokeen artean, hamasei. Eta guk lortzea hamazazpigarrena. Beraz, Udala baldintzatzeak aukera izugarria genuke.

Zaharrak

“Arlo sozialean instituzioen eta boluntario jendearen artean herriko beharrak zerrendatu egin behar dira, antolatu eta plangintza egin. Zahar etxeari garrantzi handia ematen diogu. Izan ere, alde horretatik ere partxoea da nagusi gure herrian: orain zahar etxean gela gutxi batzuk gehiago egin nahi dituztela, gero ez dakit zer... Kontuan hartu hemendik 20 urtera 65 urtetik gorako herritarrak % handi-handia izango direla. Beraz, taxuzko zahar etxea egin behar da Azpeitian”.



“EB ez da abertzalea, Aralar bai; hori da koalizio honen kontraesan bat, baina gainditu egin beharko”

“Prest geundeke EAJ oposiziora bidaltzeko. Gainera, komeni da hala izatea, 1979tik dagoelako agintzen”

Zuk aipatutako kasu hori emango balitz, zer?

EAJ gugana etorriko litzateke, baina gure babesa lortzeko gauza asko exijituko genituzke. Zer egin? Garbi dagoena da bloke horietako bat eskubialdekoa litzatekeela (EAJrena) eta bestea ezkerrekoa (EAE-ANV, EA), eta ni neu seguruago sentituko nintzateke ezkerreko jendearekin, naturalagoa litzateke.

Zer esan nahi duzu horrekin? Prest geundekeela kasu horretan EAJ oposiziora bidaltzeko. Gainera, komeni zaigu hala izatea. Izan ere, 1979tik dago Azpeitian agintzen eta ohitura asko daude hartuta, jokabide motak... Esaten da: “Hau horrela da eta horrela egin behar da”, eta puntu, ez dago besterik. Jarrerak zabaldu egin behar dira.

Azpeitiko udaletxean diru asko mugitzen da eta diru hori beste era batera erabil daitekeela uste dut.

Hirigintza da diru gehien mugitzen den sailetakoa. Zer iruditzen zaizu Udalarren hirigintza politika?

Partxoea dela. Ez dago plan estrategikorik. Jendea fitzajaten bada, udal honek momentuko beharren arabera baino ez du jokatzeko. Zulo bat dagoela hor? Estali. Eskailerak egin behar direla? Egin. Espaloia igo behar dela han; gero espaloia horretan beste zerbait egin behar dela. Hau asfaltatu behar dela. Festak datozela eta bukatu egin behar dela halako... Hori egiten da, baina plangintza orokorrik gabe.

Zuen programan etxebizitza arloari garrantzia handia eman diozue.

Azkeneko 20 urtean Azpeitia biztanle aldetik ia ez da hazi; 200en bat biztanle baino ez. Eta herria zenbat zabaldu da? Askok. Orain Loiola aldean egin nahi dituzte etxeak. Ez zaigu bide egokia irudi-

tzen. Bai, babesezko etxeak egingo dituzte han baina, azken batean, gero eliteko etxez josteko da, interesak daudelako. Azpeitiak ez du halakorik behar. Loiola aldea ingurune berdea da eta hala zaindu behar dugu, gerora ere ondo etorriko zaigulako.

Zeure hautagaitzaren aurkezpenean, etxebizitza hutsak azpimarratu zenituen.

Mila inguru daudelako herrian. Gure proposamena, Azpeitian lau urtean etxe pribaturik ez egitea da. Etxe gehiago behar badi-ra, babesezkoak. Eta, batik bat, gure proposamena da etxe hutsak erabilpena ematea, alokairura eta aterata. Etxejabe horiei lagundu egin behar diegu, berrikuntzarako eta diru laguntzak emanda, eta ez badute nahi alokairura ateratzea euren etxe huts hori, ez dut esaten erakunde publikoek espropiatu egin behar diotenik, baina bai zigorrak jarri, alokagai jartzeko derrigortzeko azken batean.

Kultur arloaz zer diozu? Zeu kultur talde batean ibili izan zara urteetan, orain gutxi arte: Zine Kluben.

EAJK ez du irizpiderik hor ere. Nola gaude taldeak Azpeitian lokal aldetik? Oso gaizki, eta 2007. urtean gaude. Lehen Basa-zabalen kultur etxea egiteko asmoa zuen Udalak, gero ezetz esan zuen, eta orain hotela egin nahi du. Zer irizpide du? Hor ere partxoearen politika egin dutela iruditzen zait. Orain Soreasu egitera doaz, San Agustinpe ere egokitu nahi dute, pentsa zenbat urte pasatu diren hori dena egiteko, baina gero pasatuko da galdetza hasiko direla gune horiek nola kudeatu behar diren, zer plangintza behar den... Hori dena orain planifikatu behar da, lasai, denen artean, baina udal honek ez du halakorik egiten. Herriko kultur patrimonioa gorde egin behar da. Eta hor, euskarekin ez jokatu. Esate baterako, ziurtagiri aldetik bikoizketak sortu gabe.

MANOLI URANGA ▶ PSE-EEren alkategaia

“Ez nuke egingo lau urteko akordioa, libreago izateko”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: Leire Larrañaga ▶ Marrazkia: Enok



OHIKOA.

PSE-EEren ohiko zerrendaburua izaten bihurtzen ari da Manoli Uranga Azpeitiko hauteskundeetan, berriro izango delako alkategai. Berak bezala pentsatzen dutenei botoa ematea ahalbidetu nahi diela dio azpeitiar euskaldunak.

Etxea, baserria, udaletxea. Manoli Urangaren lekurik ohikoenak. Uztarria udale-txean hartu du.

Lau urte eta gero, berriz ere aurkeztu zara.

Neure ideiak defenditzeko egin beharreko gauza da. Orain dela lau urte bezalako animoa edo handiagoa dut. Hori ez da aldatu. Orain zortzi urte aurkeztu nintze-nean bezalaxe. Ideiak ideia dira, eta bakoitzak berea defenditzeko eskubidea dugu.

Lau urteko esperientzia zinegotzi bezala nola laburtzen duzu?

Berez, politiko mina duenaren-tzat, izan daitekeen posturik poli-tena da udaletxekoa, zinegotzi postua. Oso positiboa da zinego-tzi gisa herriaren ordezkari izatea.

Nolako lana izan da udaletxe-koa? Barrutik ezagutuko zenuen lau urte hauetan.

Bai. Pentsa, PSE-EEtik neu naiz zinegotzi bakarra eta udal batzor-de denetarako gonbidapena duzu. Alderdi bezala, batzorde denetara joatea dagokizu; beste-la, ez zara enteratzen gaiaz. Nor-malean arratsaldean izaten dire-nez, bilera gehienetara joan naiz. Ordu pila da.

Eta gai denez ulertzerik ba al dago?

Zer nahi duzun eta zer ez aukera-tu behar. Hirigintzako denetara joan naiz. Hutsegina ditudan gehienak Kirola eta Festak batzordeak izan dira.

Zer dela-eta Hirigintzakoetara interes handiagoarekin?

Hortxe izaten da mugimendu gehien, herriari gehien eragiten dion batzordea da. Basoak, men-dia... hor badaude gai batzuk.

PSE-EEK EAJrekin arau orde-zkatzaileetan bat egin du.

Oso gai garrantzitsua delako. Bat egin dugu gauza askotan. Hemen, gainera, kuriositatea ematen da: EAJ eta EA udal gobernuan egon dira baina, aldi berean, elkarri oposizioa egiten ere bai gauza garrantzitsu batzuetan. EAJk eta Eak aurrenetik hasita izan zuten beraien puskaketa, Esklabetako eremuan erresidentzia egitearen kontuarekin. Han atzera zeinek egin zuen nik oso garbi dut. Eta nik garbi esan nuen bi erresidentzia ez nituela nahi, beste askok esan zuten bezala.

Zuek lau urte hauetan zeren alde egin duzue, batik bat? Zer atera nahi zenuten?

Babes ofizialeko etxeak. Hori oso garbi nuen.

EAJ-EAk 2003ko programan zioen "herri-babespeko 200 etxebizitza eraiki" behar zirela. Ez dute bete.

Proiektuak aurrera eramatea eta adostasunak lortzea kostatu egingen da.

Babes ofizialeko etxeak non egin?

Etxebeltz-Izarra urbanizagarri jarri zenean, proiektua Sanjuandegiri lotuta ikusten nuen nik beti.

Hogei bat urtean Azpeitiko biztanleria gutxi hazi da, eta herria bera zenbat hazi den hedadura aldetik...

Onartu beharra dugu Azpeititik gazte asko joan dela Azkoitira: prezio hobeak zeudelako, erakin gehiago zeudelako...

Eta Azpeitian mila etxebizitza hutsik daudela esaten da.

Baina zer baldintzatan? Eta jabeak alokatu nahi ez badu, zer egingen da? Eusko Jaurlaritzaren alokairu programa ere hor dago, baina Azpeitian jende gutxi segitu du hori.

Alokairuaren gaian neurri gehiago hartu behar, akaso?

Agirreanean egingo da esperientzia; ikusiko dugu zenbat jendeak nahi duen. Denek, azken batean, etxea jabetzan nahi dute.

Pertsonalki, zer moduz?

Orain lau urte bezala. Itxaropen berak...

Lan estiloa

"Neu izan naiz Azpeitian PSE-EEren zinegotzi bakarra azkeneko legealdian, eta ezin ba bakarrik egonda miraririk egin udaletxean-eta. Denbora izan behar da, gaiez ulertu... Hala, udal batzordeetan elkarrekin egoteaz gain, hortik aparte alderdi bakar batekin ere ez dut bilerarik egin. Gaieinguruan loturak bilatzen saiatu naiz, baina hortik aurrera ez. Orain, berriz, ez dut kanpaina berezirik egingo, beti egin dudana baizik".



“Zinegotzi izan gabe izan nuen nik lehen saioa, etxeari su emanda. Baina ez naiz joango hemendik”

“Batik bat, etxebizitzaren arloari ematen diot garrantzia; gazte asko joan da Azkoitira bizitzera”

Eta orain bost urte, zinegotzi izan aurrekoarekin alderatuz?

Orain sei urte izan nuen nik lehenengo saioa, etxeari su emanda. Zinegotzi eta ezer izen gabe. Eta zinegotzi izan aurretik ditut nik bizkartzainak.

Zenbat baldintzatzen du horrek bizimodua?

Nik garai hartan Azpeititik irten edo ez planteatu nuenean, ama bizirik nuen. Amak guztion beharra zeukan eta egunero joan nahi nuen baserrira. Joaten nintzen eta ahal nituen ordu guztiak harekin pasatu nituen. Minik handiena, amarekin pasierara ezin irten izatea izan da. Oso bizimodu gogorra da.

Eta segitzeko erabakia hartu duzu.

Aukera bakarra dut, ordea: horrela edo alde egin. Eta joan, ez naiz joango. Ez dago eskubiderik, ez era batera pentsatu ez beste era batera pentsatu, pertsona bat horrela bizitzeko. Hemen segitu nahi dut, hemengo naiz. Nire sen guztiak hemen daude. Euskalduna naiz, besteen hainbeste naizen edo gehiago naizen ez dauka inor neurtzerik. Maite dut lur hau. Eta denok ezberdin pentsatzeko eskubidea daukagu, denok, elkar errespetatuz.

AASri ezingo diote botoa eman herritarrek...

Indarkeria gaitzetsi behar du ezker abertzaleak.

Alderdien Legeak ez dio hori.

Badakite zer egin behar duten aurkezteko. Ez dut besterik esango. Politika, soilik politika egiteko erabili behar da. Indarkeriak ez du balio. Ez du merezi eztabaida batean sartzea.

Zer helburu ditu PSE-EEK hauteskunde hauetarako?

Nik ez dut ezusterik hartuko. Jendearen erabakia da.

Zuek orain lau urte 356 boto lortu zenituzten Azpeitian.

Igo egingo gara.

Beraz, eta oraingoan EAE-ANV hor dagoela, zinegotzi bat ateratzeko bai?

Ez diot hainbesteko zerarik ematen horri.

EB-Aralar, PP eta PSE-EE hor ibiliko al zarete zinegotzi bat lortzeko?

Oso zaila da jakitea. PPren botoa ere oso leiala da.

Zertan oinarritzen zara botoetan gora egingo duzuela esan duzunean? Egindako lanean?

Ez da asmo anbiziotsua, eh. Lau urte hauetan lana egin dut, eta jendea oso sentsibilizatuta dago.

Azpeitian inork lortuko al du gehiago osoa?

Baietz uste dut. EAJk. EA eta biak aurrekoan koalizioan joan ziren eta ez dakigu Earen boto erreala zein den Azpeitian. Nik hor nire zerak baditut. Jendeari entzunda, uste dut EAJk gehiago osoa lortzeko aukera duela. Jakina, nahia-godut ez balu aterako.

Gehiago osorik ezean, alderdien artean akordioak egin beharko dira.

Udal gobernu osatzeko, legealdiko akordioa egin baino nahiago dut gauza puntualak adostea eta besteetan ezezkoa esateko libre izatea.

Beraz, PSE-EE ez legoke prest legealdiko akordioa egiteko.

Ez, ni ez. Bestela, horrek lotu egingen zaitu nahi ez duzun gauza baten alde bozkatzera.

Babes ofizialak aipatu dituzu lehen. Hari ez ezik, zer ematen diozu garrantzia?

Garbitasuna, esaterako. Herri bat ez da garbiena asko garbitzen delako, gutxien zikintzen delako baizik. Arazo bat, ibaiaren garbitasuna da. Aratz-errekatik hasita Zumaiaraino ibai ertza plastikoz beteta dago zuhaitz adarretan. Neurri batzuk hartu behar ditugu, baita boluntario bezala joan eta garbitu egin behar badugu ere. Saneatuta dugu ibaia, baina ingurua...

Besterik?

Auzoak. Garraio, telefonia eta Internet... Auzoetarako zerbitzuak lotzen hasi behar dugu. Etxe berriak egingen ari dira, baina zaharrak erortzen; Nuarden, adibidez. »

JULIA TERCERO ▶ PPren alkategaia

“Zinegotzi ez banaiz ere, azpeitiarrak ez ditut utziko”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: Leire Larrañaga ▶ Marrazkia: Enok



DONOSTIATIK.

Azpeititik kanpo bizi den alkategai bakarra da Julia Tercero; Donostian bizi da. Aurreko hauteskundeetan ez zegoen PPren zerrendan ere, baina ia urtebetera zinegotzia zen. Herria ezagutu nahi zuela zioen; Donostiatik?

Segurtasun neurri askoz bizi da Julia Tercero, Azpeitian jende gutxiarekin du harremana, eta badirudi atsegin duela kazetariak elkarriketa egitea.

Oraingoan, zerrendaburu. 2003an zerrendan ere ez zeunden.

Baina ni 2004ko urtariletik naiz zinegotzi. Orain azpeitiarrak behar bezainbeste boto ematen badizkirate, berriro izango naiz zinegotzi.

Zer helburu dituzue?

Gutxienez, bikoitzea; zinegotzi batetik bira pasatzea.

Eta ez baduzu zinegotzi postua ateratzen, Azpeitiaren alde lanean segituko al duzu? Donostian bizi zara, herrian ez daukazue egiturarik...

Edozer egiteko prest nengoke. Azpeitiarrak ez ditut utziko, eta behar nauten bitartean hor izango naiz, politikoki ezin bada, sozialki. Hori bai, lortuko bagenu azpeitiar batek nik defenditzen ditudan ideiak defenditzea udaletxean, ni esanda nago orduan sobran nengokeela. Askatasunik ez dago, ordea. Bitartean, lanean segituko dut. Legealdi honetan lan egin dudala uste dut, Udalarekin kolaboratzen aritu naiz.

Zer erara?

Nire ideia politikoei eutsiz baina beste alderdiekin elkarlanean, herritarren onerako, bizi kalitate hobea izateko. Izan ere, Udaleko jarduna beste erabatekoa da.

“Elkarlana”, zeinekin?

EAJ eta EA batera egon dira udal gobernuan, baina PPk EAK baino gehiago lagundu dio EAJri.

Eta hori?

EAJren ekimenak egokiak iruditzen zitzaizkidalako. Ideia politikoa gehienetan legebiltzarrean

defenditzen dira eta udaletxean, aldiz, kudeaketa egiten da, herri-arrantzat, hauentzat kudeaketa-rik gertukoena udalek egiten dutelako: etxebizitza arlokoa, ongizatekoa...

Arau ordezkatzaileretan EAJ-ren alde azaldu ziren, eta Julian Eizmendi alkateak lan ona egin zuela zenioen.

Kontsekuentea izan da Eizmendi eta nik babestu egin dut, ideia alderdikoak izan dituenen salbu.

Hauteskundeotan EA bakarrik aurkeztuko da. EAJk gehiengo osoa lortuko ez balu, zein litzateke PPren jokabidea zinegotzi postua eskuratuz gero?

Ez dakit. Legealdi honetan ikusi dena da EAJ eta EA aurrez aurre egon direla, eta hori ez da modurik egokiena Udala gobernatzeko. Herriarrentzat onerako lan egin behar da eta, udal gobernuan daudenek eztabaidatu arren, beste era batera egin behar dituzte gauzak.

Baina zer egingo zenukete?

PPn goian erabakitzen dena ikusi behar, Azpeitian modu librean ezin dugulako aritu. Alderdian irizpide batzuk ditugu, joko arau batzuk, eta horiek bete egin behar ditugu. Dena dela, nik uste pixka bat independentea izan naizela, herriko ekimen batzuk onak iruditzean aurrera egin dudalako, nahiz eta PPren irizpideekin oso bat ez etorri ekimen horiek. Beraz, zer? Ez lidake axolako EAJrekin kolaboratzea, ez horixe.

Azpeitian EAE-ANV hor izango da, AASri ez diote utziko...

Kontua da ezker abertzalea hor izango dela. Oso azkarrak dira. Baina daukagun [Espainiako] Gobernua dugu... Beste Gobernu batekin ez zen hau pasatuko.

la hiru urte eta erdian zaude Azpeitiko udaletxean, herrian. Nolako balantze pertsonala egiten duzu?

Etorri nintzenean, ez nuen Azpeitia ezagutzen. Pare bat aldiz baino ez nengoen egona, festetara-eta etorrita. Saiatu naiz herria ezagutzen, bere auzoak... Herri-


Soziala

“Ni neu erizaina naiz eta arlo soziala da gehien ezagutzen dudana. Horregatik, garrantzia handia ematen diot. Asko hobetu beharra dago; batik bat, zerbitzuen kalitatea.

Langileak asko baloratu behar dira, hauek ardura handiagoak hartu behar dituzte, eguneko zentroetan langile gehiago behar dira... Zahar etxeaz, berriz, ez da egokia beste bat egitea, EAJk nahi duen bezala, aldeak ezarriko liratekeelako. Azpeitiak ez du hori merezi. Azpeitiak zahar etxe ona behar du, San Martin indartuta”.



“Ni alderdian independentea izan naiz, eta ez litzaidake axolako EAJrekin kolaboratzea”

“Euskara ez dakiten %7 horiek ez dira hemen kontuan hartzen! Gero eta gehiago lehenesten da euskara”

rrak ezagutzen ere saiatu naiz, baina denok dakigu askatasunik ez dagoela eta, zoritxarrez, ez dut lortu jendea nigana zuzenean etortzea proposamenak egitera.

Orduan, nola izan duzu herritarren berri?

Gutun bidez komunikatu izan dira nirekin, eta saiatu naiz laguntzen. Ez ditut dezepzionatu.

Haiekin harreman zuzena lortzeko zer egin duzu, ordea?

Gutxi. Jendeak ni ikustean, keinu txiki bidez-eta agurtu izan naute. Egia esan, neuk ere ez ditut konpromisoan jarri nahi. Gutun bat bidali nien herritarrei, neure burua eskainiz lanerako. Bestela, gerturatzen saiatu naiz, dendetan izanda, tabernetan... Behin ere ez naiz baztertuta sentitu, baina jendea nigana ez da etorri. Nahiko nuke bakoitzak geure ideiak defendituko bagenitu beldurrik gabe.

Zer hobetu beharko litzateke Azpeitian?

Gauza asko egin dira, baina beti dago zereginik. Esate baterako, babes ofizialeko etxeak egitea gazteentzat. Ezinbestekoa delako. Izan ere, lortu behar dugu gazteak ez joatea herritik. Azpeitiak ekonomikoki perspektiba onak ditu, eta saiatu behar dugu kanpoan trebatu diren azpeitiar gazte horiek ere hona bueltatzea, lanpostu onak eskainiz, soldata duinak... Gero, jakina, mailegu aldetik leporaino ez egoteko. Izan ere, horrek 30 urte bete arte familia sortzea eragozten die.

Politikariok ia gauza bera diozue etxebizitza arloaz...

Bai, baina egin? Eta egin, egin behar da. Nik esan dudana hori defenditzen dut, egokiena delako. Esperientziak diot, gainera, hiru seme-alaba ditudalako eta badakit zer ari zaien pasatzen. Hala ere, Azpeitian etxebizitza politika egokia aurrera eramateko oinarriak jarri ditugu. Adibidez, orain babes ofizialeko etxe batzuk zozkatuko dira Loiolako bidean,

baina ez denak, zergatik? 2006-an lanean hasi direnei aukera emateko hurrengo zozketan sartzeko.

Alokairuari buruz zer?

Sustatu egin behar da. Oso etxe gutxi alokatzen da, eskaintza ez delako handia. Gainera, zer gertatzen da Azpeitian? Etxea erostearen kultura oso indartsua dela.

Euskaraz zer, 2004an baino gehiago ba al dakizu?

Zerbait ulertzen dut, baina ez dakit. Hiru aldiz saiatu naiz ikasten, baina ez dut hizkuntzekiko erraztasun handirik izango... Nire seme-alabek badakite euskara.

Zeure aurkezpenean esan zenuen Azpeitian kontuan hartu behar direla herritarren artean euskaraz ez dakiten %7 horiek.

Hala da-eta! Ez dakit jendea konturatzen den. Gainera, beste gauza bat: euskaldunen artean jende asko dago euskara idatzia ulertzen ez duena, eta hemen idatzia euskaraz soilik izatea...

Zer esan nahi duzu horrekin?

Adibidez, *Azpeitian* zer? udal aldizkaria bi hizkuntzatan egin behar dela, ez euskaraz soilik, bertan jartzen dena ulertzeko denek.

Beraz, azken batean ari zara esaten Azpeitian anbulatorioak, epaitegiak... ere euskaraz funtzionatu behar dutela.

Hala da.

Oro har, ez da hala gertatzen.

Baina zer gertatzen da, esaterako, anbulatorioan? Azpeitian eskatu izan da pediatrek euskaraz jakin behar dutela, bainakasu horretan ezin da lehenetsi euskara, baizik eta pediatriaren maila, azkenean pertsonen osasunarekin jokatzen ari direlako. Nik neure umeari medikuak zerbitzu ona ematea nahi dut, ez euskaraz hitz egitea. Medikuak euskaraz baldin badaki, ondo, euskara mantendu egin behar dugulako, baina profesional onak behar dira. Gertatzen ari, ordea, hemen ere gero eta gehiago lehenesten dela hizkuntza, euskara, eta mediku onak hemendik joaten ari zaizkigu. »

Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari? ▸

ROSARIO IBAETA ▸
UEMEko kidea



“Segurtasuna eskatuko nioke; lapurretak, puskaketak... izaten ditugulako

dendetan. Herria sakabanatzen ari da, eta erdigunea pixka bat baztertuta dago. Biziberritzeko ekintzak poliki eta berandu iritsi dira, eta herriaren bihotza zaindu eta biziberritu egin behar dugu”.

HAIZEA EGIGUREN ▸
Gazte Asanbladako kidea



“Gaztedia kolektibo bezala onartu behar da; hau da, arazo desberdinak dituen kolektibo bezala.

Behin hori onartuta, gazteek Udaleko erabakiguneetan hitza izatea bermatu behar da. Era berean, Udalak gazteei tresnak eta gune propioak eskaintzeko konpromisoa hartu behar du”.

ELI AGINAGALDE ▸
Misio Taldeko kidea



“Azpeitiko Udalak hirugarren munduan dauden herritar misiolariari laguntzen jarraitzea eskatzen

dugu. Herrian bidezko merkataritzako denda finko bat jartzea ere nahiko genuke. Herriko aurrekontuen %0,7 herriko behartsuenei bideratzea gustatuko ere litzazuke”.

ALAITZ AIZPURI ▸
EHEko kidea



“Euskara ofizialtasun osoz erabiltzeko, Udalak neurriak hartu behar ditu: Udala UEMAKo

bazkide egin, erakunde publikoak euskaldundu, udal ordenantza betearazi eta, nola ez, euskararen normalizazio planen osaketa herritarren erabakietan oinarritzea”.

Alderdien proposamen nagusiak ▸

etorkizuna ERAIKI NAHIAN

Datorren legealdira begira, alderdiek proposamen ugari bildu dute programetan; etxebizitzaren arloak garrantzia handia du

▸ Testuak: Maider Zendoia ▸ Argazkia: Leire Larrañaga

ETXEBIZITZA ▸

EAJ. “Zortzi urterako 1.250 etxebizitza planifikatu dira errekalifikaziorik gabe eta etorkizuna hipotekatu gabe (erdiak baino gehiago babestuak), urtebeteren barruan 330 bat etxe babestu zozketatuko ditugu eta alokairu soziala ere bultzatuko da”.

EAE-ANV. “Etxe hutsen merkantua aktibatu, alokairu politika martxan jarri, etxebizitza berrietan babes ofizialekoak lehenetsi eta tasatuei babes ofizialekoen baldintzak ipini”.

EA. “Gaurko etxe beharrari gaur erantzun, etzirako utzi gabe”.

Aralar-EB. “Babes ofizialeko etxebizitzak eta alokairu soziala sustatu, parte zaharra berritu, etxe pribatuei moratoria ezarri eta Loiolako hiribidea berde mantendu”.

PSE-EE. “Ahal dela, babes ofizialeko etxebizitza gehiago sustatu behar dira eta alokairu soziala ere bultzatu beharko lizateke”.

PP. “Etxebizitzak alokatzeko kultura sustatu behar da, jabeek alokairua kobratzea eta etxebizitza baldintza onetan berreskuratzea bermatuko dizkien neurriak hartuta; oro har, babes ofizialeko etxebizitzak alokairua sustatu behar da”.

HIRIGINTZA ▸

EAJ. “Bidegorrien sarea burutu; parkeak egin edo anpliatu (Sanjuandegin, udaletxe atzean estalia, ikastetxe gunek...); parte zaharra eta auzoak eraberritzen joan eta akzesibilitate arazoak konpontzen jarraitu”.

EAE-ANV. “‘Martxialgo’ labeen kokapen aldaketa azkartu, inguru

horren erabilera eztabaidatu eta adostu. Garraio publikoaren bultzada nabarmena. Eta inguruko parke eta gune berdeak babestu eta bultzatu”.

EA. “Arkitektura oztopoak kendu eta bat-batean jarri N-1 erako intera azkarra”.

Aralar-EB. “Bidegorria hedatu ibaia ardatz gisa hartuta, saihesbideari alternatibak eman, erdigunea oinezkoentzat izan dadila, eta lurpeko aparkalekuak jarri behar dira Betharramdarretan eta epaitegian”.

PSE-EE. “Obrak, ahal den neurrian, hitzartutako epeetan bukatu behar dira”.

PP. “Komunikazioak garatu behar dira errepideen plan estrategiko baten bitartez, autobia berriak eta N-1 erako lotura burututa, Foru Aldundiarekin lankidetzari”.

INDUSTRIA ▸

EAJ. “Industria poligono berriak egin –Larrin eta Larre industria lurretan–, eta Corrugadosen leku aldaketari behin betiko bultzada eman”.

EAE-ANV. “Larreko industriagunea erabileran ipini behingoz, enpresen berrikuntza proiektuak enpresa berrien sorrerarekin batera lagundu, eta bultzatu enplegu duina sortzera bidean”.

EA. “Lantegi batek baino gehiagok herritik alde egin ez dezan, lursail berriak eskura eta presta ditzagun”.

Aralar-EB. “Lur industrialia kudeatu inguruneari eta jasangarritasunari lehentasuna emanda, eta langileen baldintzak kontuan izanda”.

PSE-EE. “Industriaguneak sustatu behar dira, enpresa gehiagok ez alde egiteko Azpeititik”.

PP. “Enplegua sorraraziko duen lurzoru industrialia eskuratzea beharrezkoa da, enpresa berriak garatu eta ezarrita eskualdea lehiakorragoa izango delako eta enpresak beste guneetara ihes egi- tea saihestuko delako”.

GIZARTEA ▸

EAJ. “Adin nagusiko pertsonentzako zentro integralaren eraikuntza sustatu; alkohola eta droga

GLORIA ODRIOZOLA ▶

Aitonena batzordeko kidea



"Batzordeko txanda bi urtean behin gauzatzeko laguntza eskatzen diogu udal berriari. Bestalde,

garraio publikoa sustatu behar da, Azpeitia ez dagoelako ondo komunikatuta. Azkenik, esku zabala izateko eskatzen diogu, sei urtean ez digutelako diru laguntza handitu".

ELI ARANGUREN ▶

Izarraitzpeko Sorginak-eko kidea



"Emakume arloak gizarte ongizatek atera eta beste arloetan eragiteko ahalmena izan behar

du. Horrela, plan feminista bat diseinatu eta martxan jarri behar da, formazioa duen emakume teknikari batek kudeatuta eta herriko emakumeen parte-hartze zuzenarekin".

Datuak

9:00-20:00. Goizeko bederatzietan irekiko dituzte hautes kutxak maiatzaren 27an. Itxi, gaueko zortzietan.

11.135. Hauteskundeotan 11.135 lagunekoa da errolda.

17. Azpeitiak daukan biztanleriaren arabera, udaletxean 17 zinegotzi izatea egokitzen zaio.

IÑAKI ALTUNA ▶

Nuarbe Sokatira Taldeko kidea



"Aurten taldea osatzea lortu ez badugu ere, aurrera begira sokatirako instalazioak

mantentzeko eskatzen diogu Udalari. Bestalde, ondo legoke sokatira herri kirol gisa sustatzea ikastetxeekin lankidetzan. Horrela lortuko dugu etorkizuneko harrobia".



Etxebizitzaren arazoaren aurrean, konponbide desberdinak proposatzen dituzte alderdiek. UZTARRIA

arazoez prebentzio eta kontrol politiketan pauso berriak eman, batik bat adin txikikoekin".

EAE-ANV. "Pobreziari aurre egiteko neurriak lehenetsi, eta hirugarren adinari begira San Martin egoitzaren bigarren handitzea burutu, eguneko zentro eta apartamentu tutelatuarekin batera, gune berean proiektatuz".

EA. "Zerbitzu sozialek, antolamendu eta eraikuntza osatu batean soilik egon beharko lukete eta ez bitan, azpeitiarren artean desberdintasunik ez egoteko".

Aralar-EB. "Herriko beharrei erantzungo dieten zerbitzuak hedatu, haur eskolak urte osora

zabaldur malgutasun osoz, eta hirugarren adinekoentzako egoitza publikoa bultzatu".

PSE-EE. "Ahal den herritar guztiezuzenduta egon beharko lukete gizarte zerbitzuek".

PP. "Eguneko zentroen plazak gehitu, eta emandako zerbitzuaren eta etxeko laguntzaren kalitatea bermatu behar da, erantzukizuna sustatuta".

KULTURA ▶

EAJ. "Hasitako ekipamenduak burutu (Soreasu eta San Agustín); ondare artistikoa ikusgai jartzeko ahaletan jarraitu (Loiola eta parte zaharra lotu); Azpei-

tiaren 700. urtemugarako ekitaldiak antolatu".

EAE-ANV. "Kulturaren parte-hartze mahaia indartu Soreasuko proiektuan adostasunak lortuz, diru laguntza politika arautu, ekin-tza kultural txiki eta ertainen azpiegiturak lehenetsi, eta herrian dugun kultur aniztasunaren (jatorria...) erakuslehoak sortu".

EA. "Herriko taldeei indarra emanez sendotuko dugu kultura".

Aralar-EB. "Herriko patrimonioa erabili, Soreasu sendo bat egin, Sanjuandegin kultur gunea zabaltu, eta hizkuntzan hitanoa berreskuratu".

PSE-EE. "Ea eraikuntza berriak

martxan jartzen diren eta herritarrek bizitza ematen dieten".

PP. "Soreasuko kultur gune berriak adierazpen kultural guztiei zabalik egon behar du, kalitateko antzezpen eta ekimen berriekin (zine foruma, hitzaldiak, kontzertuak...)".

BESTERIK ▶

EAJ. "Errespetuan eta baloreetan oinarritutako elkarbizitza sustatu, herritarren partaidetza bultzatu, sakabanatutako herriguneetan batzordeak eratuz (Urrestilla, Nuarbe, Matxinbenta, Lasao, Loiola...)..."

EAE-ANV. "Arloz arlo parte-hartzea eta erabakiguneak herritarrei ireki, Udaleko baliabideak horretara bideratuz (teknikariak, aurrekontuak, komunikazio tresnak...)".

EA. "Gaztediari 'zahar txaparik' ez; gazte, zuk zeuk eraiki behar duzu zure etorkizuna; EA beti izango duzu lagun, alboan, ondoan".

Aralar-EB. "Herritarren kezka, iradokizun eta beharrak kudeatu ahal izateko bulego bat jarri beharko litzateke martxan eta, bestalde, diru publikoaren kudeaketa bermatu beharko luke Udalak".

PSE-EE. "Herriko guneak zaindu eta txukun mantentzeko joera hartu behar dugu herritarrok".

PP. "Eskualdean Zainketa Aringarrien Unitatea ezartzea proposatzen dugu". ◀



elkartasuna HARRIAN

Presoei elkartasuna adierazteko, lehen aldiz eskalada txapelketa antolatu dute Gaztetxean

► Testuak: Ane Aranburu ► Argazkia: Uztarrria

Azpeitiko Topaguneak hirtzordu berria jarri du maiatzaren 11 eta 12-rako: *Euskal presoak euskal harrietara* lelopean eskalada txapelketa eta diapositiba emanaldia antolatu dituzte Gaztetxean. Maiatzaren 11n (21:30ean) diapositiba emanaldia eskainiko dute Gaztetxean. Hurrengo egunean txapelketa izango da, eta eskalatzaile amateur zein elitekoak lehiatuko dira. Txapelketa ondoren, Dirua, Cohen eta Instep taldeen kontzertuak izango dira 22:30ean, Gaztetxean.

Era horretako txapelketa bat egingo duten lehen aldia dela dio Gorka Karapeto antolatzaileetakobatek. Azpeitiko Topagunearekin elkarlanean, hamar bat lagun aritu dira antolatzen.

Karapetok adierazi duenez, hiru mailatan banatuta egongo da txapelketa. "Alde batetik, inoiz eskalatu ez duen edo noizbait proba egin duen jendea bilduko du aurreneko mailak. Jendeak kirol hau probatzeko aukera polita dela uste dugu", dio. Bigarren mailan, herriko eskalatzaileak lehiatuko dira. "Herritarren artean osatutako lehia izango da biga-

rrena eta, gehiago edo gutxiago, eskalatzen aritzen direnek parte hartuko dute". Goizean egingo dituzten bi maila horietako sailkatuek arratsalde partean jokatuko dituzte finalak. Horien ondoren lehiatuko dira elite mailako eskalatzaileak, hirugarren saioan. Karapetok azaldu duenez, "hamar bat eskalatzaile izango dira, inguruko herrietatik gonbidatutakoak eta, zuzenean, final moduko bat jokatuko dute".

► **BLOKEAK.** Eskaladan, egingako pausoak bloketan neurtzen dira eta, hala, hasiberriek 4 eta 5 mailako blokeak egingo dituzten bezala, eskalatzen ibilitako azpeitiarrek 6 eta 7 graduko blokeak egingo dituzte. Hortik gorako gradukoak dira elite mailakoek egiten dituztenak.

Txapelketaren bitartez, eskalatzeko erraztasunak jarri nahi dizkiote jendeari. Hori batetik, eta, bestetik, Azpeitiko Topagunearen aldarria lau haizetara zabalitzea da euren helburua. "Parte hartzaileek *Euskal Presoak Euskal Harrietara* leloa idatzita izango duten elastikoak eramango dituzte soinean".



Herriko gazte eskalatzaileak herrian duten egoitzan. UZTARRRIA

Elkartasun Eguna, hilaren 26an

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak aurtien ere antolatu du Elkartasun Eguna; maiatzaren 26rako izango da (Udalaren baimenaren faltan). Zazpigarren edizioa izango da eta ekitaldi sorta zabala antolatu dute: krosa (11:00), herri kirolak (12:30), bazkaria (14:00), sokamuturra (17:00), manifestazio isila (19:00) eta, Habeas Corpus eta Oliba Gorriak taldeen kontzertuak (22:00). Xabier Aranburu Azpeitiko Topaguneko kidearen ustez, "eguneko ekitaldi esanguratsuena manifestazio isila izango da". Haren iritziz, "presoen eskubide zibil eta politikoei urratuta jarraitzen dute, eta konponbidearen bidean beharrezkoa da arazo larri horri irtenbidea ematea". Aranburuk herritarrei gogorarazi nahi die balkoietan zintzilikatzeko mairidireak berriro daudela salgai tabernetan. ◀



BERISTAIN TXAPELDUN DUELA 25 URTE.

Buruz buruko Lehen Mailako txapelketa jokatzeko ari dira orain pilotan, binakakoa ere izaten da, lau t'erdikoa, Bigarren Mailakoa... Badira txapelketak. Urteetan Azpeitian bizi den errezildar batek irabazi zuen Lehen Mailan behin binakakoa: Juan Mari Beristainek. Joxean Tolosarekin, duela 25 urte: 1982an. Ozta-ozta irabazi ere: 22-21 Garcia Ariño IV.a-Maiz II.a bikotearen kontra. Donostian jokatu zuten, Anoeta frontoian —orain Atano III.a izena du—. Argazkian, Tolosa eta Beristain, 1982an, binakako koparekin.

► Testua: Uztarria ► Argazkia: Juan Mari Beristainek utzita

Efemerideak ▶ maiatza



Txolartekoek lokal berria inauguratu zuten 2002ko maiatzaren 11n. UZTARRIA

gertakariz betetako HILABETEA

**Kaleak harriztatu, komunak jarri Loiolan...
makina bat gauza pasatu da maiatzean!**

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarrria)

MAIATZAK 1-1682 ▶

Parrokiko erretaula. Parrokiko erretaula nagusia egitea erabaki zuten aho batez. Gainera, batzorde bat izendatu zuten herritarren artean egurra eta diru laguntzak eskatzeko.

MAIATZAK 2-2002 ▶

Orkatzen diru kontuak blokatuta. Batasunaren kontrako operazio polizial eta juridikoaren barruan, Orkatz Kultur Elkarteko diru kontuak blokatu egin zituzten, Baltasar Garzon Espainiako epaileak aginduta.

MAIATZAK 11-2002 ▶

Txolarte Eguna Azpeitian. Gipuzkoako Txolarte Eguna ospatu zuten Azpeitian.

MAIATZAK 12-1897 ▶

Komunak Loiolan. Loiolako zelaian komunak egitea erabaki zuten.

MAIATZAK 15-1667 ▶

Arrainaren prezioa. Amuarraina eta aingira, libra erreal bat eta erdian saltzeko agindu zuten.



Loiolako komunak. UZTARRIA

MAIATZAK 17-2002 ▶

ELAren egoitza berria. ELA sindikatuak egoitza berria inauguratu zuten Azpeitian, Arana auzoan.

MAIATZAK 18-1972 ▶

Jantzi berriak mazeroentzat. Herriko mazero eta txistularientzako jantzi berriak erostea erabaki zuten.

MAIATZAK 25-1887 ▶

Herriko kaleak harriztatzen. Enparan eta Santiago kaleak harriztatzeko baldintzak onartu zituzten. ◀

Pertsonaia ▶

'TXOKOLO' GOGOAN.

Jose Mari Gurrutxaga Sorazu *Txokolo* 1881eko maiatzaren 9an jaio zen Nuarbe auzoan. Txistulari gisa ospe handia lortu zuen, eta herriko musika bandako zuzendari izatera iritsi zen. Haren doinuek herriari estu lotuta jarraitzen dute.



Datua ▶

5

URTE LAGUN ONAK-EN IGOERATIK.

Lagun Onak futbol taldeak Hirugarren Mailarako igoera lortu zuen Asti zelaian Zarautzi 1-2 irabazita, 2002ko maiatzaren 26an. Tentsioa azken uneraino luzatu zen, garaipena partida bukatzeko bost minutu falta zirela Poncek sartutako golak eman zielako azpeitiarrei.

Argazkia ▶



ORGANEGIA EGITEKO BAIMENA.

Remigio Egigurenek Iturriza-aldea ingurunean organo fabrika bat zabaltzeko baimena eskatu zuen 1915eko maiatzaren 17an. Aurkeztutako plana onartu egin zuten. Azpeitiko belaunaldi batzuek egin zuten lan Harzubia parean kokatutako lantegian.

Kontua da... ▶

Agintarien aukeraketa



Imanol Elias
Odriozola

Gauza gehienetan beharrezkoa izaten da aldaketak egitea, urteak igaro ahala gizarteak egiten dituen aldaketei erantzuteko. Horrela, ordura arte egokiak ziruditen hauteskundeetarako ordenantzetan aldaketa nabarmen batzuk egitea erabaki zuten azpeitiarrek 1735. urtean.

Haien arabera, urte bakoitzeko irailaren 29an izendatu behar ziren agintariak. Alkatea aukeratzeko unean, alkatetzarako hautagaia batzarrean ez izan arren, haren ordezkari bat batzarrean izatea nahikoa zen alkatea izendatzeko. Alkateak kargua utzi ondoren, ordeza, ezin zuen ondorengo hiru urtean beste kargu bat izan herriko gobernuan. Era berean, ziren hutsune tarte horiek izendatu zituzten gainerako agintarientzat. Fiel kargua izandako pertsonak, esate baterako, bi urteko tarte izango zuen inolako kargurik gabe, eta tenienteek eta erregidoreek, be-

rriz, urtebetekoa. Horrela gauzak, azpeitiarrek garbi zuten aukeraketa mugatuta zegoela. Ondorioz, neurriak hartu eta ordenantzak eguneratu beharrean aurkitu ziren. Halaegin zuten 1735eko urriaren 23an egindako batzar nagusian, aho batez.

Hurrengo urteko San Miguel egunean egin zuten aukeraketa batzarrean, une hartan batzarrean aurkitzen ez zen edonor aukeratu ahal izan zuten alkate, fiel, teniente edo erregidore karguetarako. Nahikoa izango zuten urtebeteko tarte beste edozein kargurako berriro aukeratuak izateko. Hori bai, hiru urteko tarte utzi beharko zuten aurrez izandako kargua eskuratzeko.

Batzarra amaitzean, eskaera erregeari zuzentzea erabaki zuten. Joakin de Altunak bidalitako gutunean eman zuen horren berri 1736ko martxoaren 2an egindako udalbatzarrean.

Garai bateko Azpeitia ▶ Justo Zendoiak kontatua

bizitza osoa **BASERRIAN**

Justo Zendoia Miraflores ('Takolo') baserriko ugazaba da. Baserriko kontuak eta ganadua izan dira haren bizitza

▶ Testua: **Maidar Zendoia**

Justo Zendoia 1921eko maiatzaren 28an jaio zen, Azpeitian, eta baserriari lotuta igaro izan du bizitza guztia. Miraflores baserriko ugazaba da; hau da, herrian 'Takolo' bezala ezagunagoa den baserriko nagusia. "Azpeititik kanpo bizi izan naizen une bakarra, soldadutza garaikoa izan zen. 42 hilabete egin nituen etxetik kanpo", dio Zendoiak.

Eta hiru urte eta erdik askorako ematen dute. "Soldadu gisa, Garrantian hilabete batzuk eman nituen, Plentzian sei hilabete eta gainerako guztia Iruñean pasatu nuen garaia ebakitzen". Lan asko egindakoa dela dio.

Txikitatik izan zuen abildade berezia baserriko kontuetarako. "Nire eskaera bati erantzunez, aitak bederatzi urterako ekarri zizkidan ardiak zaintzeko. Eskolara joatea baino ganadua zaintzen egotea nahiago nuen". Ganadua da Justo Zendoia eguneroko lana: azpiak atera, jaten eman, garbitu... Lan desberdinak egin

“Aitak bederatzi urterako ekarri zizkidan ardiak zaintzeko; eskolara joatea baino ganadua zaintzen egotea nahiago nuen”

JUSTO ZENDOIA ▶ baserritarra



Miraflores baserriaren aurrealdea, Izarraitz magalean. JUAN JOXE AGIRRE

izan ditu baserrian. "Hamar urtean esnea banatzen ere ibili nintzen herriko 24 karreratan. Orduan bai nuela sasoia!".

▶ **ALDAKETA.** Azkeneko urteotan Azpeitia asko aldatu dela uste du. "Sanjuandegi osoa berria da eta Landeta aldean lehen ez zegoen hainbeste lantoki".

Oraindik baserriko lanak egiten jarraitzen du, eta bilobak asko laguntzen diola aitortzen du. Susto txiki bat ere izan zuen 2006ko apirilean. "Haurdun zegoen behiak zartada eman eta saihestezurra hautsi zidan".

Gaur egun, bizimodu lasaia goa dauka. "Asteartero traktorean jaisten gara azokara eta erosketak egiten ditugu". Azokari lotutako bitxikeria bat ere badu: antzina arkumeak pisatzeko erabiltzen zuten pisuan pisatzen da bera, astero.

Azokako eguna kenduta, herri-ara gutxi jaisten da, baina hutsik egin gabe azaltzen da igandeko hitzordura: "Miserikordira, meza entzutera". ◀



Hitz gezidunak ▶

▶ Egilea: Luma

	* IZENA		▼	Lehentasu- na dute		▼	Hobi		▼	More bihurtua		▼	Doinua
	Leizea			Ez ohiko			Azkena eta lehena			Atsegin			
	▶			▼			▼			▼			
	Segan ari- tzen da		▶										
	Bizkaieraz, ostiral												
Ez estuak	▼	Adimen		▶	▼		Ez zuzen		▶				
Basati		Gizon izena					A birritan						
▶		▼		Nafarroako urtegia		▶		▼		Bizkaieraz, ote	▶		
				Antolatu						Marokoko hiriburua			
* DEITURA	▶				▼				▼				
Gipuzkoa- ko herria													
▶								Bokala	▶	Bokala	▶		Naizen honek
								Ezezt		Australia			
Barazki lekaduna	▶					Amerikako estatua	▶	▼		▼		Nitrogenoa	▶
Laru bihurtu						H2O						Atzizkia	
▶					▼		Aurkitu	▶				▼	
							Röntgen						
Errep., fruitu tropikala	▶			Pausoak	▶		▼						

* Azpeitiar mendizalea

Hitz gurutzatua ▶


EZKER ESKUIN. 1. Litzatekeenari baina ez denari dagokio-
na. 2. Bokala. Segada, xedera, tranpa. Kontsonantea. 3. Bat
gehi bat. Presio unitate. Musika nota. 4. Bilo. Kontsonantea.
Bi zati bi. 5. Zaborrak uzteko leku. 6. Modua. Bokala. Tente. 7.
Sodioaren ikur kimikoa. Ohorezko hitz emate. Ba..., baneuka.
8. Bokala. Gizon izena. Bokala. 9. Zeinahi.

GOITIK BEHERA. 1. Deitura. 2. Boroaren ikur kimikoa.
Errenkada. Bokala. 3. Galderetan. Emakume izena. Anno
Domine. 4. Euskal sindikatu abertzalea. Huts. Arrazoi.
5. Azpeitiko auzoa. 6. Kitatzeke dago. Kontsonantea.
Bibliako pertsonaia. 7. Errepikatuz, gorotza. Balio Erantsia-
ren gaineko Zergaren laburdura. Nori atzizkia. 8. Oxigenoa-
ren ikur kimikoa. Adiskide. Kontsonantea. 9. Zatitan egina.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2		■						■	
3			■				■		
4				■		■			
5									
6				■		■			
7			■				■		
8		■						■	
9									

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN APIRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

Zer dago gaizki?



Kartela



Axun Etxaniz



Axun Etxaniz Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 83. irabazlea. **Yuritz** dendako oparia irabazi du sari bezala. Argazkian, Axun Etxaniz –esku-bian– eta Garbiñe Yuritzeko dendaria.

Zein da hau? ▶



ERANTZUTEKO EPEA ▶

Maiatzak 21 (astelehena)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

ZEIN DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Zaldiko dendako erosketa txartela

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrrian bazkide izan behar da

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Zaindu ▶ Txokoa

Julian
Bereziartua



Txokoa ez da niretzako itsaskirik estimatuena baina, merezimendu osoz, kontuan hartzekoa da. Bere izen zientifikoa 'sepia officinalis' da; horrek adierazten digu sendakuntzarako gaitasuna duela. Hala ere, interesgarriagoak dira elikatzekeo dituen ezaugarriak.

Zefalopodoa da, pota eta olagarroa bezala. Neurritz kanpoko itxura du, buru ikaragarria eta begi irtenak ditu. Barruan, kareizko lamina zuri eta hanpatua du, gaur egun arte hortzak garbitzeko pasta egiteko balio izan duena. Bere haragi jangarria haritsu edo zuntzekoa du.

Konposaketari dagokionez, bisiguak eta urraburuak bezala, %70 ura du. Dena jangarria dela esan daiteke: %17 proteina du eta koipe eta azukrerik ia batere ez. 100 gramok 80 kaloria dituzte; beirak, marraskiloak edo bisiguak bezala.

Animalia azkarra, maltzurra eta bizitza grinatsukoa dela diote. Egia esan, ez nekien itsas ondorian ere parranda zaleak badirenik. Maltzurkeria aipatzen denean, uste dut arriskuzko egoeratan duen jokabideaz ari direla: tinta beltza botatzen du etsiak engainatu eta ihes egiteko. Arra senar ona izateaz gain, aita ona ere ba omen da baina, hala ere, emeek maitasunezko erokeriengandik aske izatea nahiago dute.

JESUS ARAKISTAIN ▶ bizikleta saltzaile eta konpontzailea

Zure ametsetako bizikleta?

Karbonozko bizikleta.

Zein da bizikletaren zatirik garrantzitsuenak?

Aldagailuak eta gurpilak.

Gehien saltzen den bizikleta?

Mendikoa.

Bizikletaren matxura arruntena?

Gurpila zulatzea.

Errepidekoa, mendikoa, trialekoa...

Errepidekoa nahiago dut.

Errepidean ala belodromoan?

Errepidean.

Txirrindularitza, kirola ala aisia da zuretzat?

Azpeitian kirolera bideratuta dago.

Txirrindulari bat?

Miguel Indurain.

Talde bat?

CSC.

Lasterketa bat?

Tourra.

▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia



Abizena ▶

Imaz

Armarria.

Ondoko armarria Lazkano etxeko armarria da. Armarriaren atzealde gorria da. eta zuhaitz berde bat eta bi otso beltz aurrez aurre ageri dira zuhaitzaren behealdean.

Banaketa semantikoa.

▶ Imaz abizenetik dator; ima- (zume, larre) eta -atz (tokia) hitzek osatzen dute.

Esanahia.

Zumitza edo larrea esan nahi du abizenak.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Urnieta.
- ▶ Segura.
- ▶ Tolosa.
- ▶ Ataun.
- ▶ Azpeitia.
- ▶ Oñati.
- ▶ Durango.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Oñati (1596).
- ▶ Ataun (1644).
- ▶ Leintz-Gatzaga (1756).
- ▶ Amezketa (1773).
- ▶ Segura (1790).
- ▶ Bilbo (1750).



Esandakoa ▶

“Nobeletan obsesio batetik abiatzen naiz. ‘La lutte finale’-n gainbehera fisiko eta sexuala izango da”

JOXEAN AGIRRE ▶
idazlea

“‘Zer moduz [Joxe Agirre] Oranda?’ galdetzean, nik: ‘Oholtzara igotzen gaizki. Goian fenomeno’”

ANDONI EGAÑA ▶
bertsolaria

Zenbat ▶

48

LASTERKARI.

Azpeitiko 48 lasterkarik bukatu zuten martxoaren 31n Azpeitia eta Azkotia artean izandako maratoi erdia.

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Gertuko pasadizoa ▶

antzezteko arra TXIKITATIK

‘Kontxu Odriozola’ liburutik hartua

▶ **Argitaratzailea: Azpeitiko Udala**

▶ **2002 ▶ Egilea: Pako Aristi**



KAPITULUA ▶ Alpagatak josi, baike! (11. orrialdea)

“Gure amak oraindik ere ezin du ulertu”, zioen Kontxuk 1995ean Argia aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean. Eta umetan? Nolakoa ote zen amaren jarrera bere alaba marizoro harekiko? Hona Kontxuren hitzak: “Aitak beti lagundu izan zidan bezala, amak gaizki ikusten zuen nire zaletasuna. ‘Hori dana txorakeria da’, esaten zuen. Debekatu inoiz ez zidan egin, baina haizerik eman ere sekula ez. Ni kantuak ikasten ari banintz, hark esango zuen: ‘Ba, txorakeriatan denbora pasatzen dezu’. Horiiek alferren kontuak ziren bere ustez. Eta gainera, holakoren bat esaten zuenean alboko jendea-

ri begiratzen zion. Eta jarraitzen zuen esanez: ‘Hemen benetako lana egin behar da, ikusten dena, alpagatak josi baike, zeozer baina dirua ematen duena’”.

Alabaina, Kontxuk zeukan sen hura, garaiko bizitza kaskarra nolabait gainditu eta ederrago bilakatzeko joera hura, ez zegoen inola ere geldiarazterik. Kantuak, imitazioak, barrealgarako antzezpeneak, aldizkariak, zinea... ihesbi-deak bilatzen saiatzen zen. Horietako beste bat irratia izan zen. Gaur egun ere, gau guztia irratia piztuta egiten du lo askotan, *pinganilloa* belarrian sartuta. Hori bai, batzuetan buruko minarekin esnatzen omen da. “Radioak asko lagundu dit niri beti. Radionobelak eta denak

entzuten nituen. Maria Dolores Agirrek edukitzen zuen astean behin deklamazioko programa bat, hura ere asko gustatzen zitzaidan. Ni radioaren azpian jarrita egoten nintzen, eta igual zitzaidan zein entzun, Radio Nacional, Radio Paris, berdin. Beste tresna bat zen mundu horretatik alde egiteko, aberastu egiten ninduen, emozionatu egiten ninduen, imajinazioa lantzen lagunduko zidala pentsatzen nuen”.

Garai hartan, neska kuadrila hark dena bereganatzen zuen. Ingelesa ere hitz egiten zuten, euren ustez ondo, filmeetako elkarrizketak errepikatuz. Zinean ikusitako koreografiak ere muntatzen zituzten, *Un americano en Paris* filmekoa, esate baterako, hango pauso batzuk errepikatzen zituzten.

“Herri hartan, garai hartan, nik dena falta nuen, nik nahi ez nuena zen hura, nik pentsatzen nuen beste mundu batzuk bazeudela, eta ni haien ametsetan ibiltzen nintzen, baina ze-neukanakin jolastu behar zenuen. Oso mundu txikia zen hura”.

14 urterekin bere lehen antzerkia egin zuen: *Ya lo creo* obra, *Uste dinat*, Lopez Mendizabalena. Neskame batzuen istorioa zen, Donostian markesa baten etxean lanean ari zirenak. Eta edertasun horren bila jarraitu zuen. ◀

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40



Lore Sortak
Koroak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabiete, 25



INFORMATIKA ZERBITZUAK



ORDENAGAILUEN KONPONKETA ETA SALMENTA

- PORTATILAK
- OSAGARRIAK
- BIDEO ZAINZA
- WIFI SAREAK
- KOMERTZIOTARAKO TPV-AK
- TABERNENTZAKO MUSIKA SISTEMAK...



JANDONIANIZ PLAZA 5 AZKOITIA Tel.: 943026428 Fax.: 943026329
email: etk@etkinformatika.com

www.etkinformatika.com

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00	Anbulategia	02 54 00
Udaltzaingoa	15 13 13	Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Suhiltzaileak	112	Eguneko zentroa	15 71 94
Azpeitia Lantzen	15 71 83	Asepeyo	81 44 00
Iraurgi Lantzen	85 11 00	Gurutze Gorria	85 32 97
Nekazal Bulegoa	81 24 85	DYA-Donostia	46 46 22
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79		
Zapo Txoko / GIB	15 71 61		
INEM	15 04 02		
Kiroldegia	81 30 69		
Igerilekua	81 41 21		
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80		
Aitonena I	81 51 71		
Aitonena II	81 23 89		
Epaitegia	02 51 91		
Ingurumen Etxea	81 24 48		

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)	Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58
EA	81 00 11	Kontseilua	943 59 12 00
PSE-EE	15 72 00		
PP	15 72 00		

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauez ▶ maiatza

7-12-13-16-31

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

8-17

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

9-18-28

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

10-14- 19-20-29

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

11-15-30

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

1-2-21-26-27

Ruiz (Azkoitia).
943 85 19 66

3-22-23

Jaen (Azkoitia).
943 85 06 60



URKOME, LANDA EREMUEK SUSTATZAILEA.

Urkomeko kideek Urola Kostako landa eremuko egitasmo eta proiektuak jaso eta aztertzen dituzte lagunduak izateko. Enparan kalea 1-2. solairuan daude eta 943 81 65 00 zenbakira deituta edo urkome@infonegocio.com helbidera idatzita aurki daitezke.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	09:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik

EUSKAL OKELA

CARNE DE VACUNO
DEL PAIS VASCO

**BAIMENDUTAKO
HARATEGIA**

EUSKO LABEL



EUSKAL OKELA



**"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"**

Beloki

Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA

Jose Antxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA




KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBAL.
TFONOA.: 943 811671

AITOR UNANUE ▶ erraldoi eramailea

“Zortzi lagunek ateratzen ditinagu lau erraldoiak”

▶ Testuak: Mainer Zendoia ▶ Argazkiak: Leire Larrañaga eta Aitor Unanuek utzita



TXIKITAKO AMETSA.

“Nik asko jolasten ninan kamioi txiki eta eskabadoreekin, eta oraindik ere asko gustatzen zaizkidan. Makinista edo kamionero izan nahi ninan. Gerora etorri zitzaidan dantzarekiko afizioa, eta Itsasi taldean nengoela eskaini zidatenan erraldoiekin kalejirak egiten hastea”.

Aitor Unanue, erraldoiak kaleratzen dituen taldeko kidea da. Hiru urte daratza horretan eta maiatzean Kataluniara eta Legazpira joateko eskaintza egin diote.

Noiz hasi hintzen erraldoiak soinean ibiltzen?

Erraldoiekin hasteko ideia Itsasi dantza taldeko partaide nintzela sortu zunan. Mikel Ibartzabal zinegotziak proposatu zigun erraldoiekin kaleratzea 2004an.

Erraldoiak eta buruhandiak bereizten al dituzue?

Herriko gazte talde bat ibiltzen dun buruhandiekin. Normalean, kalejira soila denean denok batera irteten dinagu, baina txapelketan edo beste herrietara joatean, geu bakarrik joaten gaitun.

Nola antolatzen duzue lan taldea?

Zazpi edo zortzi pertsonako taldea dinagu lau erraldoientzat.

Zein da erraldoia eramatearen zailtasun handiena?

Azpeitiko erraldoiak inguruetakot arinenak ditun. Lehen egurrezkoak hitunan, baina gu hasieran aluminiozko gorputzak egin zizkioten. Pisua baino garrantzitsua goa dun oreka mantentzea.

Nola bereizten dituzue erraldoiak?

Txinoa, moroa, ilehoria eta beltza izenekin bereizten ditinagu.

Nola antolatzen zarete?

Lau erraldoiek ezaugarri desberdinak ditinategi. Ni ia beti moroarekin ibiltzen naun. Hasiberrie, berri, ilehoria nahiago izaten diten, maneiatzeko errazago delako.

Zer egitura ditek erraldoiek?

Goia zumitzezkoa dun eta behe, berri, lehen egurrezkoa zunan eta orain aluminiozkoa.

Aurrera begira, zer egitasmo dauzkak buruan?

Kataluniara –Montblanc herrira– eta Legazpira joateko gonbitea luzatu ziguten. ◀



Antton Eizagirre Korrikaren lekukoa eskuan hartuta bere etxe atarian, Bastidan (Araba).

euskarari GORAZARRE

Antton Eizagirrek urteak daramatza euskararen alde lanean Bastidan. Omenaldia egin diote aurten Korrikan

▶ Testuak eta argazkia: Maider Zendoia (Bastida)

Jaiotzez azpeitiarra bada ere, Antton Eizagirrek urte asko daramatza herritik kanpo bizi- zuten. Azken urteotan Bastidan (Arabako Errioxa) bizi da eta eus- kalgintzarekin izandako konpro- misoa dela-eta omendua izan zen martxoaren 23an, Korrikan. "Eus- kaldun izaera bihotzaren barruan daramat eta sentimendu hori ez dit ezta San Pedrok ere kendu- ko!", esanda laburbiltzen du Eiza- girrek euskarak bere ibilbidean izandako garrantzia.

Azpeitian Lanberrondo base- rrian jaio zen, 1921eko maiatza- ren 28an, baina hamabost urtere- kin Debara Sasiola baserrira joan zen morroi. Mintzaeran nabari zaio herri desberdinetan bizitako gizona dela. "Jaiotzez azpeitiarra naizen arren, bederatz bi urte- rekin Zestoa aldean igaro nituen bi negualdi, hamalau urterekin Debara Sasiola baserrira joan nintzen morroi, handik Eibarrera Cil enpresara lan egitera eta, az- kenik, Gasteizera bizitzera. Azke- neko urteak Bastidan pasatu ditut". Beraz, bizipen ugari izan- dako gizona da.

▶ **GAZTELERAZ.** Soldadutza garaiko pasadizoak ere gogoan dauzka. "Francok euskaldunak erabili gintuen Gipuzkoa eta Na- farroa arteko errepedeak eraiki- tzeke", dio Eizagirrek. Aiako Harri (Oiartzun) inguruan egon zen sol- dadu, lehendabizi errepedea erai- kitzen eta gero tunel bat egiten. Soldadu lanean aritu zen denbo- raldi hartan, euskaraz mintzatzea- gatik behin baino gehiagotan zigortu zutela dio. "Gaztelera- z hitz egiten ez nekien eta nirekin soldadutza zeudenak ere, nire antzera, euskaraz hobeto molda- tzen ziren". Haren ustez, "garai hartan gutxi batzuek baino ez ze- kiten gaztelera- z hitz egiten Azpei- tian".

Antton Eizagirre 25 urterekin

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)**Euskara zinezkoaz**

Xabier Euzkitzek *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian *Antzararen begiradaren luzea*-z artikuluan Bernardo Atxagaz idatzitako zatia da hau:

“Joxe Bernardok (Atxagak) liburu labur xoragarri bat idatzizuen orain urte batzuk, ‘Bi anai’ –eta ez anaia– izenekoa. Gazteagoa zeneko errebelian arrazoitu zuten espresuki egindako oker hori. Ez zukeen halakorik egingo, hain segur, hark gehien miresten bide duen bertsolariak, Joxe Agirre klasikoak, “gure anaia zaharrena” esaten duela jakin izan balu. Izan ere, batzuetan ahantzi egiten

zaigu euskara zinezkoa gure herrikoa bakarrik ez dela”.

▶ **Uztarria****Salaketa gutxi da**

Euskararen urraketak direla-eta, irakurri dudanez 2006-an erakunde publikoei buruzko 600 salaketa inguru jaso zituen Behatokiak eta horietako bat Azpeitiko udaletxeko kasua da. Orokorrean nik uste salaketa gutxi direla. Hasi behar dugu geuk ere hots egiten-eta. 902 194 332 da telefono zenbakia. Helbide elektronikoa: telefonoa@behatokia.org

▶ **Anam****Hizkuntz eskubideez**

Igandean (maiatzaren 6an) izan [go] da Azpeitian aurtengo Hizkuntz Eskubideen Eguna, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) erakundeak antolatuta.

Eskubideak urrututa ditugu euskaldunok baina, dena besteei leporatu beharrean, euskaraz bizitzen joateko norberak egiteko moduko zera txiki batzuk hemen-txe:

– Telefono mugikorreko eranzungailua euskaraz al dugu?

– Telebistan, ordaindutako

futbol partida euskaraz jartzen al dugu soziedadean edo etxean? Edo tabernan esaten al dugu euskaraz ipintzeko?

– Erakunde publikoetara joan-dakoan lehen hitza euskaraz egiten al dugu?

– Etxean bikotekideari-amari-anaia... idatzi beharreko ohar txikia euskaraz idazten al dugu?

– Agenda propioan euskaraz jartzen al ditugu gauzak?

– Etxepeko bileretako orrialdeak, bilerak... erdaraz badaude, euskaraz (ere) izatea eskatzen al dugu?

– ...?

▶ **Iñaki Odriozola**

joan zen Eibarrera Cil enpresara lanera, eta handik bi urtera, enpresak Gasteizen zuen lantokira bidali zuten. Erraz moldatu zen hiriko bizimodura; “Eibarren lanean geundenak joan ginelako hara eta, ondorioz, euskaraz ederki moldatzen ginen geure artean”.

Azken urteotan Bastidan bizi da, eta bizilagunen artean dene-tik dagoela aitortzen badu ere, han “euskalgintzaren aurka dagoen jende asko” bizi dela uste du. Gaizkiulertu eta tirabirak ere izana da herrian. “Miguel Angel Blanco hil zutenean, adibidez, herri-rrat batzuek gurekin zuten harremana moztu egin zuten”.

Udara partean euskaldun ugari izaten da Bastidan, eta gero eta gehiagok erabaki dute herrian bizitzen geratzea. Ikastola berria inauguratzeak ere herriko giroa aldatu egin duela uste du. “Euskal ohiturak herrian errotzen joan



Eizagirrek lekukoa eraman zuen martxoaren 23an, Bastidan. KORRIKA

Beti

kolaboratu izan dut euskalgintzarekin eta halaxe egiten jarraituko dut, hil arte”

“Euskalgintzaren aurka dagoen jende asko bizi da Bastidan”

ANTTON EIZAGIRRE ▶

Euskaltzalea

dira pixkanaka, eta orain Olentzero, Santa Ageda eta inauteriak ospatzen ditugu Bastidan”. Hala eta guztiz ere, eguneroko bizitza euskaraz soilik egitea zaila dela deritzo.

▶ **OMENALDIA.** Martxoaren 23an, Korrika Bastidatik pasatu zen egunean, omenaldi xumea egin zioten Antton Eizagirreri, lasterketaren edizio guztietan parte hartzeagatik. “Orain 27 urte hasi nintzen ospakizun honetan parte hartzen, eta bi urtetik behin, Bastida ingurutik pasatu izan den ba-koitzean parte hartu izan dut”.

Bestelako kontuetan ere aritu izan da euskararen alde lanean; makina bat aldiz ibilia da kalean kartelak jartzen, ekitaldiak antolatzen eta ekimenak sustatzeko kaleratutako produktuak erosten. Hala, martxoaren 23a egun berezia izan zen Eizagirrerentzat. Euri

erauntsi eta elur artean pasatu zen Korrika Arabako Errioxatik, baina herritarrek egindako harre-beroa aise uxatu zituen egu-raldiaren gorabeherak. “Une hun-kigarri bat dut buruan: Urizaharra eta Bastida lotzen dituen menda-tetik pasatzean, elurra errepidetik kentzeko herritarrek egindako ahalegina”.

Oro har, Korrikako hura oso “egun sentibera” izan zen haren-tzat eta bere sendiarentzat. Goi-zean lasterketan hartu zuten parte eta gauean omendua izan zen. Ikastolako gurasoek antola-tutako omenaldian 150 lagun izan ziren. “Bertsoak abestu, au-rreskua dantzatu eta Korrikako le-kukoaren erreplika oparitu zizki-daten”. Aurrera begira, argi dauka jarraitu beharreko bidea. “Beti ko-laboratu izan dut euskalgintzare-kin eta halaxe egiten jarraituko dut, hil arte”. ◀



kutxa



domusa

Euskararen gorabeherak ▶

AZKUNE FRUTA

LOIOLA
20730 AZPEITIA
TEL:943811933

TIKET ZENB: 006005 EGUHA: 19/03/2007

KOP. AZALPENA PREZIOA ZENBAT.

4.060 PATATA BERRIA 15KG	0.92	3.74
1.000 BARATXURI SORTA TXIKIA	0.98	0.98
0.485 PIPERRA BERDEA I	1.77	0.86
0.685 ZERBA	1.16	0.79
0.540 AZENARIOA	0.77	0.42
0.335 BERENJENA	0.95	0.32
2.000 AHUAKATEA pieza 1	0.95	1.90
0.330 LIMOIA I	1.05	0.35
0.910 TOMATE RAMBO ESTRA	2.85	2.59
1.505 PLATANOA 16 kg ESTRA	1.28	1.93
1.775 LARANJA NAUFI ESTRA	1.24	2.14



GORA. Tripako minik ez, jakina

Jaten dugunaren berri izatea garrantzitsua bada, tripako minik ez du ematen hori euskaraz emateak. Azkune fruta enpresari fruituak ematen dizkio horrek.



BEHERA. Kontrako eztarrian katigatuta euskara

Produktuen berri gazteleraz ematea ez da beharrezkoa bezeroak erosten dutenaz jabetzeko. Euskalduna sukaldean ere euskaraz mintzo da.

SMACKS 500	2,63
CERVEZA	2,30
QUESO CABRA LACTICO	4,01
Y.AZUCARADO EROSKI	1,03
ESPARRAGO EROSKI	
3 X 1,99	5,97
CHOCOLATE MILKA LEC	0,76
CHOCOLATE LINDT	
2 X 1,32	2,64
PEREJIL	1,18
HUEVO L EROSKI	0,75
CUAJADA DANONE	0,99
CUAJADA DANONE	0,99
GALL.MARIE LU INTEG	2,17
LECHE ENTERA	
12 X 0,69	8,28
TOTAL / GUZTIRA ..	33,70

Zer egin? ▶



Bada euskaraz ez dakienik eta erdarara jo beharrean i zuten gara. Euskarari eutsi, ez etsi. Jarrera horrek ez dakienari errespetua galdu gabe, zer pentsa emango dio eta”

Euskal Herrian Euskarazen
‘Bideak’ eskuliburutik hartua;
Uztarran dago edonoren eskura

Albisteak ▶

Udalaren hizkuntz politika hizpide maiatzaren 16an

Kontseiluko kideek Azpeitiko Udalaren Hizkuntz Politikaren inguruko hitzaldia emango dute maiatzaren 16an, 20:00etan, Sindikatu Zaharrean.

Erakunde euskaltzaleak urtarri-lean eman zituen jakitera Euskal Herriko 66 udalerritan egindako udal hizkuntz politikaren neurketaren emaitzak. Azpeitiko Udala geratu zen aurreneko tokian, berak lortu zuelako punturik gehien: hamarretik 6,82ko nota. Hala ere, Kontseiluak euskara lehenesten duen politika sistematikora (7ko notara) iritsi gabe geratu zen Azpeitiko Udala.

Kontseiluak denera 55 galderako galdetegia prestatu zuen, euskarak hamar ataletan duen garrantzia neurtzeko. Euskalgintzako 150 bat laguntzailek erantzun zuten, eta haien artean aritu ziren Uztarría Kultur Koordina-kundeko Euskara arlokoak.

Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia **902 19 43 32**

Elebide **012**

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide




gaur eguneko diseinuak
egur trinkoan **GAZTANONDO, GEREZIZKO
ETA HARITZEZKO ALTZARIAK**

www.lasao.com

Lasao
• egurrezko altzaria


Lasao Industrialdea z/g
Tel. 943151182



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50



uda udaberria 2007 uda udaberria 2007 uda udaberria 2



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI



Urola
Lanbide Heziketa

ireki begiak etorkizunari

DBH

BATXILERGOAK

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Mekanizazioa

Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Administrazioa eta finantzak

Mekanizazio bidezko produkzioa

Zurgintza eta altzarigintzako produkzioa*

eta gainera

Atzerrian praktikak

Okupazio tasa %90 baino gehiago

AURREMATRIKULA
ekainaren 7ra arte

Perdillegi, 3
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 81 37 70

Altamira auzoa, z/g
20720 AZKOITIA
Tel.: 943 85 21 74

www.urola.org



D.B.H.-on



Emo SN 2000
Euro School Net 2000



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, LANBIDE, ENPLAQUE
ETA HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN